



ARGIA

NILS MEIZER *

ASSANGE AUZIAZ

“Heriotza
zigorra ezarri
nahi diote prentsa
askatasunari”

* NBeko torturaren
inguruko kontalari berezia

22-27. orriak



**Obuluen dohaintza:
klinika pribatuen
negozioa**

12 | SARA LAFUENTE



**Molde berriak
etxebizitzaren
aldeko borrokan**

28 | POLITIKA



**“Naparra BVEk
desagerrarazi
zuen”**

32 | JON ALONSO



19,5 €

%100 kotoi
organikoa



Kolore berriak!

Bost kolore aukeran:
Urdina, beixa, arrosa, berdea eta grisa.

Lurra herriari deika

Jaten dugun elikagai bakoitzarekin,
nekazaritza eta gizarte eredu bat bultzatzen
ari gara. Beraz, jatea bihur dezagun egunean
hiru bider egiten dugun plazerezko iraultza!

Erosteako: argia.eus/azoka 943 37 15 45

Agroekologia mugimendua
eta  **ARGIA** elkarlanean

Kamiseta erosita, 2 €-ko **ekarpena** egingo
diozu agroekologia mugimenduari
eta beste hainbestekoa ARGIAri.

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO IRUDIA:
‘FREE ASSANGE’ KANPAINA

Iritziak

- 17 | BALEREN BAKAIKOA
- 18 | JUNE FERNÁNDEZ
- 19 | MIKEL IRIZAR
- 19 | LEIRE NARBAIZA
- 20 | IÑAKI BARCENA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGİ-KONTRA:
- KATTALIN ARTOLA
- 54 | BERANDUEGI



DANI BLANCO

12 | SARA LAFUENTE

Miren Artetxek elkarriketatu du lagundutako ugalketa aztertzen duen ikerlaria. Ugalketa moduetan gure mundu ikuskera islatzen dela azaldu du. Obuluak merkantilizazioaren kateak eta zaintza krisian den gizartearen ajeak ere bistarazi ditu.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Lurrean jada pisu handiagoa dute material artifizialek izaki bizidunek baino

Pello Zubiria Kamino

22 | NAZIOARTEA | NILS MELZER

“Kazetari guztiak beldurtzea da Assangeren aurkako epaiketaren helburua”

Daniel Ryser / Republik

28 | ETXEBIZITZAREN ALDEKO BORROKA

Arazo zaharrari, antolakuntza molde berriak

Amaia Lekunberri

32 | JON ALONSO

“Familia beti José Miguel bila, hori etengabeko tortura da”

Xabier Letona

36 | HEZKUNTZA

Eskola publikoa vs. ikastolak?

Julen Mendoza

38 | NAZIOARTEA

Nasa yuwe hizkuntza ikasteko lehen liburua eskura dute herritarrek

Miel A. Elustondo

44 | KULTURA

Kanta zaharrekin negozio berria

Gorka Bereziartua

46 | KULTURA

Moyra Davey artxibo bizia

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria

Bego Zuza

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizaguirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Jone Markuleta, Lander Arbelaiz, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



Milaka, salbuespena izateari uzteko

Mobilizazio deszentralizatu handia egin da asteburuan Euskal Herri zabalean 238 herritan banatuta euskal preso en eskubideen alde. Azken hiru urteak euskal preso politikoen senide eta lagun batzuentzat aringarri izan direla esan liteke. 78 preso gutxiago daude giltzapean. 14 Euskal Herriko lau espetxeetan dira –2018an bi besterik ez ziren– eta inguruko kartzeletara gehiago hurbildu dituzte. Baina preso en ia herena etxetik 600 kilometrora daude eta bostetik bat 400 eta 600 km artean. Espainiako eta Frantziako salbuespen politika ankerrak bizirik dirau, eta ez soilik sakabanaketa geografikoari dagokionez –libre geratu diren gehienak zigorra beteta egin dute–. Halere, zentzu horretan bada itxaropen txikirik: hurbilketak, oso tantaka badira ere, gertatzen ari dira eta horrek balio dezake, Espainian bereziki, sakon errotutako joera mendeakuzalea eta zenbait tabu apurtzeko. Irudian: Zumaia-ko mobilizazioa.



PRESO ETA
JHESLARIAK
ETXERA

BIDEA GARA



ETXERATZEKO,
ELKARBIZITZARAKO ETA
BAKERAKO BIDEA EGITEKO
BILDU GARA 100 PERTSONA
BAINO GEHIAGO ANTSOAINEN.
ETXETIK URRUN DITUGUNAK
EKARTZEKO, KALERA!

@AntsoainGazteak



BESTE URTARRILA BAT,
MENDEKUAN OINARRITURIKO
ESPETXE POLITIKAREN AURKA

@tinixaraguanche



FREDERIC HARANBURUREN
BALDINTZAPEKO
ASKATASUNAREKIN PIZTU ZEN
ESPERANTZA IZPIA, MIKEL
BARRIOSEN PRESONDEGIRATZE
AGINDUAREKIN ITZALI DA

Anais Funosas, Bakegilea



ITXAROPENTSU IKUSTEN
DUGU ESPETXEEN ARLOKO
ESKUMENAK EUSKAL
ADMINISTRAZIOARI ALDATZEKO
POSIBILITATEA. BAINA,
HORREKIN BATERA, ESKUMENAK
ITZULI BEHAR ZAIZKIE
ESPETXE-ZAINTZAKO EPAITEGI
NATURALEI. HURBILEKO
EPAITEGIEI. ETA DESEGIN
EGIN BEHAR DA AUZITEGI
NAZIONALAREN MENDEKO
ESPETXE ZAINTZAKO EPAITEGI
ZENTRALA. ETA HURRENGO
URRATSA IZAN BEHAR DA
EUSKAL PRESOKAK ELKARTZEA,
HEMEN

Sare Herritarra



Beste preso bat hil da Zaballan

ARGIA

2020an Arabako espetxean hil den seigarren preso da F.A, 50 urte ingurukoa. Salhaketak adierazi duenez, “5. moduluan egonda, Zaballako makro-kartzelaren barruan arreta mediko faltagatik, arduragabekeriagatik, hiper medikalizazioagatik eta gainerako ankerkeriengatik hildakoen zerrenda makabroko azken preso da. Bere gorpua abenduaren 25eko goizean agertu zen”.

Espetxeak berak eta espetxe erakundeek ez dute “inolako” argibiderik eman, Salhaketak nabarmendu duenez. Arduradunek “erantzun aktiborik” ez ematea “argi eta garbi, zigorgabetasun-estrategiaren parte da” salatu du. Gogoratu du kartzela kanpoan salatzeko baldintzak “gero eta mugatuagoak eta kriminalizatuagoak” direla, “salaketa –eta borroka-tresna– guztiak debekatzen dituen alarma-egoera dela eta”. Gehitu du pandemiak asko zaildu duela barrutik kanporako komunikazioa, “hortaz, nekeza egiten zaigu abusuak publiko egitea”.

PANDEMIA KARTZELA BARRUTIK

Salhaketak oroitarazi du pandemia garaian zein den presoen eta familien egoera: “Hilabete asko dira presoak kanpoan gertatzen direnetik erabat isolatuta daudela; ez dute inolako harreman zuzenik senideekin ezta babes ingurunearekin ere. Inkomunikazio krudel honen aurrean antolatzen ari diren familiak egoera oso latzean daude”. Hauek “eskubide minimoak” eskatzen dituztela aldarrikatu du, “barrukoekin gutxieneko kontaktua izateko; izan ere, heriotzek, beste behin ere, erabateko deskonexio horren ondorioak direla baieztatzen dute”.

Salhaketak galderak hauek zuzendu dizkiete arduradunei: “Zer egiteko asmoa dute Zaballako espetxeko arduradunek? Presazko prebentzio-neurriak hartuko dira gertaera oso larri horiek ez errepikatzeke, kasu guztietan aurreikus daitezkeenak eta saihestu daitezkeenak, ala presoek eskatutako harrera-pisuen eta arreta psikologiko eta sanitarioaren baliabideak ez inplementatzearen eta pasibotasunaren alde egiten jarraituko dute? Zer motatako profesionalen eskuetan daude espetxeratuak?”.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Alferrikakoaren konkista



ARITZ GALARRAGA

Urteberri egunarekin instalatu da ulertzen zail den ohitura horietako bat: mendira bozkarioz joatea, urte berria mui-noren baten puntan hasita urte zaharreko zikin guztiak garbituko balira bezala. Ulertzen are zailagoa den ohitura bat, eguneko kirol kuota Garmisch-Partenkircheneko eski jauziekin ase daitekeela jakinda. Eta urteberri eguna bakarrik balitz sikiera; estutasun garai honek ez ote duen jai egun guztietara zabaldu mendira egiteko jaidura, behar aseezina. Aukera denik eta txiki-ena izanez gero, ale, goazen denok gailurretara. Guztiaren errua dauka Petrarca.

Francesco Petrarca, 1336ko apirilaren 4an, eta 32 urterekin, Mont Ventouxera egindako igoerak, eta ondoren idatzitako testuak, irekitzen baitute, ez bakarrik mendi-kroniken tradizioa, baita, eta batez ere, mendiarekiko sentimendu modernoaren bidea ere, gaintara besterik gabe igotzearena. Oraindik Petrarcan ez da erabatekoa, testua bukatzen baitu erruduntasun sentimendu batekin, eta San Agustin Hiponakoaren hitz batzuk irakurtzen: *"et eunt homines admirari alta montium (...) et relinquunt se ipsos"*, alegia, gizajendea mendi gainak mirestera joaten dela, eta bere buruaz ahazten. Baina gainditzen du zalantzarik gabe Petrarca berak bidean aurkitzen duen artzainaren eszeptikotasuna –gailurrera igo, zertarako?–, eta bide ematen dio beranduago lortuko den alferrikakoaren konkistari.

Baina, ondo pentsatuta, gaur egungo gure hau ez ote den inutil, ezdeus, alferrikakoaren aldarrikapena baino, erabilgarritasun berri baten erakustaldia, ez ote garen mendiratzen gorputzarenak baino arimarenak diren gorputz-kargak arintzera. Ez ote dugun gurtzen, hartara, jainko garaikide bilakatu den gorputza, sanotasunaren, produktibotasunaren, bikaintasunaren gisako santutxo-izenean. Eta ez zait iruditzen hain inutil, ezdeusa oro har alferrikakoaren konkista, hain erraz galtzen utz dezagun. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



"ALBISTE TRAGIKO HAU TRANS KOLEKTIBOAREN AURKA EGUNERO EGITEN DEN INDARKERIAREN LEKUKO DA"

TRANSGIRLS CANARIAS, EMAKUME TRANSEXUALEN ELKARTEA

Tenerifen, Iratxe Otero 29 urteko emakume transexualaren gorpua agertu zen abenduaren 26an, labankada zauriak zituela. Bilboko bere familiak hilketaren ondorengo gastuei erantzuteko modurik ez duelako babes ekonomikoa eskatu eta hedabideek biktima eta familia ez dituztela errespetuz tratatu salatu du TransGirlsek. **2021/01/04**



TransGirls

EKONOMIAREN TALAIAN

Kapitalismoaren hondeamakina



JUAN MARI ARREGI

Mercedes-Benz enpresak despeditutako Miranda de Eboko 38 urteko langile ohi batek, hondeamakina bat lapurtu zuen aurreko egunean. 20 kilometro egin ondoren, Gasteizko Jundiz poligonoan enpresak duen aparkalekura joan eta 50 furgoneta berri baino gehiagoren aurka jo zuen, autogintzako konpainia alemaniarren "altxor" omen direnak. Iturri ofizialen arabera, ez da kalte pertsonalik izan, baina 5 milioi eurotik gorako kalte materialak eragin ditu.

Ez da lehen aldia kaleratutako langile batek bortizki erreakzionatzen duena. Frantziako Estatuan, 2008-2009 artean, bere buruaz beste egin zuten Telecomeko 38 langilek. Hego Euskal Herrian ere hainbat pertsonak egin du bere buruaz beste kale gorrian gelditu denean, etxegabeturik. Garai bateko birmoldaketan aurkako manifestazioetan, bazen garrasi oso ohiko bat: "Langile kaleratua, patroirurkatua". Lan-esplotazioa oinarri duen eta etekinak baino bilatzen ez dituen sistema kapitalistaren ondorioak dira.

Mercedes-Benzek kaleratutako langilea ez da bere buruaz beste egitera iritsi; izan ere, kalean utzi zuen enpresaren ikurra kolpatu du: gama altuko furgonetak, bakoitza ia 100.000 eurokoa. Ez du beste langileen auto erabilgarrien kontra jo, ezta patroiaireneko bera kaleratu zuten arduradunen aurka ere.

Egiten zuenaz kontziente zen, uste baitzuen ez zituela gehiago ikusiko maite zituenak: bikotekidea, txakurra eta herria. Gaur egungo zigor kodeak ezer gutxi ulertzen du krisi ekonomiko baten ondorio sozialei buruz, eta kalte-galerak eragitea egozten diote. Nahiago nuke, langilea epaitu behar dutenek aztertuko balute orain gutxioko beste sententzia bat: epaile frantsesek Telecomeko arduradunak errudun egin dituzte hamar urte geroago, langileen aurkako jazarpen moralagatik. Hondeamakina, egia da, kaleratutako langileak erabili zuen. Sistema kapitalistak, ordea, horretara bultzatu zuen. ●

ANALISIA



REUTERS

Asaltoaren alde

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Eskuin muturrak Washingtonen kapitolioa okupatu zuen. Zuzeneko irudiei begira sentitu nituen beldurra, haserrea, parodia friki kutsua ezin sinetsia, kezka... Bat-batean, ohartzeke, pauso arriskutsu bat emateko zorian nengoen: erasotzaileekiko eta beren proiektu politikoarekiko etsaitasun sakonetik, kapitolioaren defentsa nire egitera. Eta kapitolioaren defentsarekin, demokrazia kapitalista patriarkala oro har, eta zehazki zein eta AEBetako. Ño, hotzikara.

Eskuin muturra kapitalismoaren erakunde nagusien azpijokoak salatu eta asaltoz hartzen, osasun krisiaren kudeaketa autoritarioa desobedituz salatzen, "hauteskunde demokratiko"-etatik sortutako gobernuen zilegitasuna ukatzen, "eliteen" kontra hitz egiten... (enpresariei hortzak erakusten? -69 luxuzko furgoneta txikitu zituen Mercedeseko langile ohi Voxen jarraitzailea dela irakurri dut. Ezin jakin egia den, kezagarria dena da posible iruditzen zaidala-). Finean, eskuin muturra jarrera antisistemak antzeztzen. Politikaren sokatiran fuerte ari da, demokrazia formalaren tablerotik irten da eskuinetik, eta sokatirara denok gaudenez lotuta, denak arrastatzen gaitu eskuinerantz.

Eskuinaren oldarraldiari erantzuteko, ezkerre demokrazia formalaren (kapitalista, patriarkala, koloniala...) makulu bihurtzeko arriskua dago: kapitolioa demokraziaren sinbolotzat defendatuz; farmazeutikek eta Bill Gatesek finantzatzen duten Osasunaren Mundu Erakundea autoritate bezala aldarrikatuz Bolsonaro, Trump edo Johnsonen aurrean; PSOEren Espainia sostengatuz Vox eta PPren Espainia ekiditeko; Urumeako uretan "langile" -armatu- bat itotzen denean "elkartasuna eta babesa" azalduz eta "lan baldintza duinak" eskatuz. Neurri batean eta kasu batzuetan -batzuetan- beharrezkoa izan daiteke, baina ez diezaiozun gure buruari beharra bertutetzat saldu, atzo arbuatzen genuenaren gorazarre egiten amaitu baitezakegu. Erakundearen eta sistema demokratikoaren zilegitasun krisia sakondu egingo da hurrengo urteetan. Galdera da: pobrezia eta ziurgabetasunaren ondorioz lehen aldiz sistema auzitan jartzen hasten den kaleko herritar batek nora begiratuko du gaur egun irtenbide eta erantzun eske, ezkerre edo eskuinera?

Krisi eta kolapso sistemiko garaian, ez diezaiozun oparitu eskuinari alternatiba erradikalen eta sistemaren aurkako jarreraren iruditeria eta bandera. Geure buruari gehiago exijitzeko garaia da, ez gutxiagorekin konformatzekoa. Tira dezagun sokatiratik ezkerre eta ezkerretik, baita tablero kanpotik ere. Oinak lurrean eta herrian, baina egin dezagun amets erradikalki, eta amets horiek gorpuzteko lan. Izan daitezela mundu zabaleko zein etxeko kapitolioak asaltoz hartuak, baina behetik eta ezkerretik. ●



@ANEIRAZABAL


ELURRA ETA HOTZA PROTAGONISTA

NAZIOARTEA. Elurra eta hotza albiste izan dira joan den astean, tartean Euskal Herrian: txoko ugari ikusi ditugu zurituta, baita elurraz gozatzen joan den jende andanaz beteta ere. Egun horietan albiste izan da, halaber, Espainiako Estatuan arindarraren prezioak nabarmen egin duela gora hotz boladaren erdian. Hotzak eta elurak utzi diguten beste irudi bat, goikoa: 3.000 errefuxiatu inguruk kale gorrian egin behar die aurre tenperatura izoztuei, Bosnia eta Kroazia arteko mugan harrapatuta, errefuxiatuentzako Lipako kanpalekua sute batek suntsitu ostean.

LANGABEZIA

169.877

lagun dira langabezia daudenak Hego Euskal Herrian, 2020a bukatzearekin batera. Horietatik 22.517 pertsonak pandemiaren urtean galdu dute enplegua. Iaz egin ziren kontratuen %92,2 aldi baterakoak izan direla nabarmendu dute sindikatuak. 2020an langabeziara joan den bost lagunetik bat 25 urtetik beherakoa da.



KLIMA ALDAKETA. 2020. urtea beroena izan da Europako erregistroen arabera eta 2016ko datuak berdindu ditu mundu mailan. Planetaren azaleraren batez besteko tenperatura 1,25°C altuagoa izan da, inpaktu okerrenak saihesteko akordioek ezarritako 1,5°C helburutik gertu.



ETXE KALERATZEA. Irungo 75 eta 78 urteko bikote baten aurkako etxe kaleratze agindua salatu dute. Kale gorrian geratzeko arriskuan dagoen bikoteak semearen mailegua abalatu zuen, eta hark ordaindu ezin izanaren ondotik, gurasoen aurkako etxe kaleratzea agindu dute.



KIROLA. Eskola kirola berriro has dadin modua egin dezala eskatu diote Eusko Jaurlaritzari asteburuan, Bilbon, Donostian eta Gasteizen egindako mobilizazioetan. 550 elkartek eta 120 herrik egin dute bat eskariarekin, eskola kirola "segurua, funtsezkoa eta onuraduna" dela-eta.

Surf Park bat egin nahi du Donostiako Udalak

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Martutenen bederatzi hektareako azpiegitura eraiki nahi du Eneko Goiaren udal gobernuak. Itsasotik lau kilometrora legoke Surf Park hau, hiria inguruetan urbanizatu gabe geratzen den mendi gutxi horietako batean, Antongegin.

EKAINEAN

Udalak ez du adierazpen ofizialik egin, *El Diario Vascok* argitaratu du udalaren asmoen berri. Proiektua ez dago onartuta eta 2021eko ekainean bideratu nahi lukete. Donibane Lohizunen, orain hilabete gutxi bota dute atzera antzeko egitasmo bat.

HEGAZTIAK ARRISKUAN

Azpiegiturak kezka sortu du hegaztiak eta haien habitatak ikertzen, babesten eta ezagutarazten aritzen den Itsas Enara ornitologia elkartearen eta SEO/BirdLife-en. Kokagune honetan gutxienez 117 hegazti espezie daukela gogoratu dute, eta proiektuak "arriskuan jarriko" lituzkeela.

SURFLARIAK AURKA

Irabazi asmorik gabeko eta mundu osoan 50.000 bazkidetik gora dituen Surfrider fundazioaren Europako federazioa ere halako egitasmoen aurka agertu da publikoki, "Olatu faltsuak kostaldean, zentzurik gabeko istorioa" oharren bidez, besteak beste.

MASA ANTROPOGENIKOA: LURRA PLANETAN JADA PISU HANDIAGOA DAUKATE MATERIAL ARTIFIZIALEK IZAKI BIZIDUNEK BAINO

Duela 120 urte arte, gizakiek milaka urtez eraldatutako material artifizial guztien masa ez zen Lurra planetak zeuzkan izaki bizidun guztiez osatutako masaren %3 baino gehiago. Geroztik, batik bat 1950eko hamarkadan abiatutako “Azelerazio Handia” medio, erabateko artifizializazioa jasan du munduak, 2020an bi multzoen pisua berdintzeraino. Gauzak txarto bidean, 2040rako planetaren azaleko lau tonatatik hiru izango dira antropogenikoak.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Gure aurreko guraso zahar nekazariak beldur ziren munduaren akabera helduko ote zen “bide huts eta etxe huts” bilakatuta; akabo baso, zelai eta baratzeak. Gaztetan haien distopiaz barre egin genuen orain amesgaizto berak larriarazteko motiboak ditugu, Israelgo Weizmann Zientzia Institutuak ezagutarazi dituen kalkuluak ikusita: Lurra planetan izaki bizidun guztien pisua adinakoa da gizakiok orain artean ekoiztu ditugun material eta produktu bizigabekoena. Errepide, etxe, merkatalgune, fabrika, auto, itsasontzi, tresna elektronikoa eta gure egunerokotasuna osatzen duten abar artifizial guztiak baturik 1,1 bilioi tona osatzen dituzte –zerotan azalduta, 1.100.000.000.000 tona– eta, Weizmann institutuak argitaratu berri duenez, 2020an iritsi dira edukitzera zama handiagoa, planetak dauzkan zuhaitz, landare, abere, xomorro, onddo eta gainerako izaki bizidun guztien artean pisatzen dutena baino.

Kopuru harrigarriotara zehazki 2020an iritsi garen erabakitzea da gutxienezkoa; aldez, planetaren artifizializazioa zein muturreraino heltzen ari den erakusteko balio lezake kopuru eta grafitoetan jartzeak, Weizmanneko ikerlariak www.anthropogenicmass.org gunean egin duten modura.

“Esanahi sinbolikoa du, gizateriak munduaren konfigurazioan eta inguratzen gaituen Lurraren egoeran duen ze-

regin nagusiari buruz asko adierazten digulako”, esan dio BBCri ikerketa zuzendu duen Ron Milo doktoreak. Batez beste, munduko pertsona guztien masa adina materia artifizial berri sortzen ari gara espezie moduan: “Horra arrazoi bat denok hausnarketa egiteko bakoitzak honetan guztian jokatzeko dugun paperaz, zenbat kontsumitzen dugun eta biomasaren eta giza jardunaren arteko oreka lortzen nola saia gaitezkeen”.

Ikerketa honetarako, Weizmann institutuko ekipoa abiatu zen Lurreko biomasa guztiaren –animalia, landare, onddo, xomorro, mikrobio...– pisua kalkulatzetik, ondoren biltzeko ekoizpen artifizialez munduan aurkitu ahal izan dituzten estatistika guztiak. Horiek elkartuta ondorioztatu dute 1900tik aurrera hogeituro bikoiztu dela produktu artifizialen pisu metatua.

Gizakiak Lurreko ekosistemak aspalditik eraldatu dituen arren, produktu artifizialen ekoizpenak abiada berezia hartu du azken 120 urteotan: 1900ean munduko biomasa osoaren pisuaren %3 adinakoa zen gai artifizialena, 35.000 milioi tona. Mende eta zerbait geroago, 1900 urtea arte metatutako 35.000 milioi tona artifizial haiek gaur egun gizadiak urtero ekoizten ditu. Masa antropogenikoaren hazkundeak 1950eko hamarkadan abiadura berezia hartu zuen, ikerlariak *Azelerazio Handia* deitu duten garaiotan. Plastikoen orokortzea hori bezain berria da

munduan, eta jada orain arte metatutako plastikoak pisatzen omen du munduko animalia guztien bi halako. Beste konparazio deigarri bat: gaur gizaki bakoitzak bere pisua adinako gai artifizial pila ekoizten duela aste bakar batean.

Masa antropogenikoaren zati nagusia hormigoiz osatuta dago, zerbaitengatik da porlana mundu artifizializatuaren ikurra. Atzetik datozkio legar edo hartxin-txarrak, adreiluak, asfalto eta metalak. Garapen ereduak berdin jarraitzekotan, horien artean 2040rako –20 urte barru– metatuko duten zama izango da Lurreko izaki bizidun guztiena halako bi.

PLANETA BETE HONDAKIN

Nabarmendu behar da Weizmann institutuaren kalkuluen arabera mende honetan zehar egonkor mantendu dela izaki bizidunen zama, oihanen suntsitze eta abarrengatik leku batzuetan galdutakoa beste batzuetan irabazitakoarekin ordaindu delakoan. Alabaina, ikerlariak aipatzen dute biomasa asko gutxitu dela duela 12.000 urte Neolito Aroa hasi zenetik, eta gaur orduan zeukan pisu totalaren erdia daukala. Gure planetak ez dauka duela 120 mendekoaren antza handirik: XXI. mende honetan batera jarritz gero gizakiak eta hauek etxekotuta dauzkaten azienda eta animalia guztiak, 20 bider gehiago pisatzen dute planetan libre bizi diren ugaztun eta hegazti guztiek baino. Batzuk zenbat ugaritu eta besteak zenbat



MAKINA LANEAN

JADA BUXATZEAR DEN
AUTOBIDE BAT ZABALTZEN,
AEB-ETAN, AMAIERARIK
GABEKO DIRUDIEN GARATZE
EREDU BATEN EREDU.
(ARGAZKIA: DIGITAL BUILDER)

urritu diren seinale. Planetaren jasangarritasunaz kezkatua den herritarrak ez luke xehetasun hau ahaztu behar, etorkizun ekologikoki orekatu bateranzko helburuak markatzerakoan.

Beste ohar garrantzitsu bat: Weizmanneko ikerlariak beren kalkuluetan soilik sartu dituzte gizakiak metatu dituen azpiegitura, material eta objektuen pisuak, ez dituzte zenbatu horien ekoizpenean sortutako hondakin ugariak. Weizmannekoen ustez hondakinak ere zenbatuz gero, masa antropogenikoak jada 2013an gainditua zuen izaki bizidun guztien masa. Hain zuzen hortik etorri zaio kritika ikerketari, estandar kontserbadoregia erabili izanagatik.

Colin Waters Leicesterreko (Erresuma Batua) unibertsitateko geologoak *Natio-*

nal Geographic aldizkariari adibide hau ipini dio, Weizmannekoen kalkuluak oso behetik jota daudela erakusteko: eskuan daramazun urrezko eraztunaren pisua kontabilizatu dute masa antropogenikotzat, baina ez dituzte zenbatu urre gramo urri horiek eskuratzeko meategian eta ekoizpen prozesuan mugiarazi eta eraldatu diren milaka tona material. Horregatik uste du Watersek, gizakiaren eraginaren ikuspegi zabalago bat erabili eta meategiek eta industriak mugitzen dituzten lehengai mendiak ere kontuan hartuz gero, jada 1977rako handiagoa zela masa antropogenikoa biomasa baino.

Etorkizunaz, zer? Weizmannkoen ikerketaren arabera, 2040rako masa antropogenikoak hirutan biderkatuko du Lurra planetako biomasa osoa, orain-

dik badagoelako artifizializazio prozesu hori burutzeko adina lehengai. Kontua da –ohartarazi du Fridolin Krausmannek, Vienako unibertsitateko Ekologia Sozialaren Institututik– masa artifizial hori guztia denborarekin hondakin bihurtuz doala eta hondakin masa ikaragarri horri egin beharko zaiola aurre. Zehazten du: “Datozen hogeit urteetan pilatuko dugun hondakin kopurua izango da aurreko 110 urteetan pilatu duguna adinakoa. Gaur egun daukagun masa antropogenikoaren gehiena 1960tik honako hamarkadetan eraiki eta sortu dugu eta ari dira beren erabilgarritasun aroa agortzen, horregatik daukagu halako hondakin metatze izugarria”. Zaharrek ez zuten arrazoi osoa: munduaren akabera... bide, etxe eta hondakin huts! ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f w

Sara Lafuente

MUSKER PARTOGENESIKOA



LAGUNDUTAKO UGALKETAREN BIDEZ MUNDU IKUSKERA JAKIN BAT BIRSORTZEN ARI GARA



Gaur egun ugalketa lagunduari buruz ari da ikerketan, nagusiki; teknika zientifiko bidez bizitzak nola sortzen diren ezezik, mundu ikuskerak nola birsortzen diren aztertzen du.



MIREN ARTETXE SARASOLA



DANI BLANCO

Tesia biozientzien eta biomedikuntzaren alorrean egin zenuen. Baina, soziologia ikasi zenuen, ezta?

Halaxe da. Nire familia oso letretakoa izan da beti. Bi gurasoek zituzten unibertsitate ikasketak, eta ni jaio ondoren ere, amak ikasten jarraitu zuen, eta unibertsitateko irakasle bilakatu zen. Aita kazetaria zen, eta ahizpak soziologia ikasi zuen. Eta nik ere bai. Batez ere mugimendu sozialak interesatzen zitzaizkidan. Mundu asanblearioak erakartzen ninduen, eta egitura sozialak ezagutu nahi nituen, aldaketa posibleei buruz hausnartzeko. Baina, ikasketak erabat aspergarriak egin zitzaizkidan hasieran. Bukaera aldera, ordea, irakasle gazteagoak ezagutu nituen, soziologia politikoa lantzen zutenak. Elena Casado, Amparo Lásen, Carmen Romero...

Gizarte aldaketak aztertzen zituzten, genero ikuspegitik eta mediazio teknologikoaren ikuspegitik. Eta bereziki erakarri ninduen zientzia eta ezagutza bera zalantzan jartzeko modu hark. Jakiteak ezagutza oro dela kokatua. Zientzia ez dela neutrala, eta ez dagoela ezerezaren gainean eraikia. Zientzia kontakizun bat da, bizitzaz hitz egiteko modu bat, eta kontakizun hori aztertu nahi izan nuen.

Mugimendu sozialekiko interesetik medikuntza eta biozientziak aztertzea, beraz.

Ez daude hain urruti... Biologiak eta medikuntzak definitzen dute mundua eta geure burua ikusteko dugun modua. Nor garen definitzen dute. Askotan boterea ikusten dugu zuzenbidean, ekonomian, politikan... Zientzia ere boterea da, ordea. Diskurtso zientifikoek ere gizartea

egituratzen dute. Eta nik horren esperientzia bizi izan nuen, birritan.

Txikitan osasun arazoak izan nituen eta denbora pasa nuen ospitalean. Kontakitu zuzena eduki nuen medikuntzarekin. Gaixorik egon nintzen, eta sendatua izan nintzen. Gaixoen eta osasuntsuen arteko muga hori zeharkatu nuen. Eta trantsizio hori bizi izanak uste dut arrastoa utzi zidala. Arrastoa, eta jakin-mina.

Bestetik, nerabezaroan heteroauratik atera izanak ere baliteke eragina izatea aukeraketan. Horrek aurrez aurre jartzen zaitu gorputzari, sexualitateari eta ugalketari buruzko diskurtsoekin, eta berriz ere, normalaren eta ez normalaren arteko muga horrekin. Eta zure begiz ikusten duzu muga hori eraikia dela. Zure gorputza ez dagoela, berez, "beste aldean". Diskurtsoek eraikitzen dituztela aldeak.



Sara Lafuente Funes

MADRIL, 1986



Sara Lafuente doktore ondoko ikerlaria da Frankfurteko Goethe Unibertsitatean. Soziologia ikasi zuen Madrilgo Complutensean, eta ondoren biomedikuntza eta biozientzien inguruko masterra London School of Economics-en. Lagundutako ugalketaren inguruko diskurtso zientifikoak aztertu ditu, queer teoria, epistemologia feministak eta zientziaren azterketa sozialak lotzen dituen begirada kritiko feministatik.



Masterra egin eta ikerketan hasi zinen... partenogenesiaz. Zer arraio da hori?

Partenogenesia ugalketa mota bat da. Animalia mota guztietan gertatzen da, ugaztunetan izan ezik. Batez ere in-sektuengan gertatzen da. Edo munduko muskerrik handienengan, komodoko dragoiengan. Ugalketa mota honetan ernaldutako gabeko obulu batek sortzen dira enbrioak, eta, beraz, bizitza berriak. Gameto arrak ez du ugalketan parte hartzen. Eta espezie horretako animalia guztiak emeak dira esaten da. Zer esan nahi du, ordea, halako testuinguru batean, “eme” izateak? Are gehiago, *eme birjinen ugalketa* gisa ere definitzen da partenogenesia. Zer da, birjintasuna? Idatzi izan da, bestalde, “eme” hauek “arren” gor-teatze eta estalketa jokabideak imitatzen dituztela. Nola imitatuko dute existitzen ez den “ar” bat? Horrela hitz egiteak ez luke zentzurik gure ugalketa ulertzeko modua erabat hetero-aurau oinarritua ez balitz.

Partenogenesia ikertzetik nola igaro zinen ugalketa lagunduz ikertzeraz? Ez da jauzi ikaragarria?

Ez hainbeste. Partenogenesiaz hitz egiteko moduan ageri da gure ugalketa ulertzeko modua gure mundu ikuskeraren mugek definitzen dutela. Ugalketa lagunduz hitz egiten dugu-

nean ere halaxe da. Ugalketaz hitz egiten dugu prozesu natural neutro bat huts -hutsen deskribatuko bagenu bezala, baina ez da horrela. Halaber, ugalketa lagunduan badirudi prozesu naturala erreproduzitzen ari garela, besterik gabe, baina, egiazki, gure kulturaren araberrako erreallitate bat sortzen ari gara.

Has gaitezen hasieratik. Zertan ez da neutroa gure ugalketa ulertzeko modua?

Pentsa. Obuluez eta espermatozoidetaz hitz egitean ia erromantze bat deskribatu ohi dugu. Bi zelula dira, bata gizonarekin eta bestea emakumearekin oso identifikagarriak. Espermatozoidea heroi gisa aurkezten dugu, eta obulua pasibo gisa. Espermatozoidea da bidea egin eta obulua penetratzen duena. Obulua penetratua denean aktibatzen da, eta hor sortzen da magia.

Iruditeria hori daukagulako daukagu orain bertan ditugun ugalketa lagundurako teknikak eta ez beste batzuk. Izan ere obuluak, esaterako, ez dira, izatez, zelula aislatuak. Erreallitatean zelula multzo baten parte dira. Obuluaren inguruko zelulak dira, adibidez, espermatozoideak eta obuluak kontaktuan jartzen dituztenak. Erakurpen kimiko bidez hurbilazten dute espermatozoidea eta badirudi

haiek direla espermatozoideen artean aukeraketa egiten dutenak ere. Zelula horiek espermatozoidea xurgatu eta obuluan sartzen dute. Ugalketa lagunduan, aldiz, inguruko zelula horiek kendu egiten dira, eta orratz bidez sartzen da espermatozoidea obuluan, alegia, gure iruditeriarekin bat datorren moduan. Alegia, kontakizun zientifiko bat sortzen dugu zeinetan zelulak aislatuta leudekeen, eta gero teknikak erabiltzen ditugu zelula horiek aislatzeko.

Ez dut esaten ugalketa mota horrek funtzionatzan ez duenik, noski. Horrela hamar milioi pertsona baino gehiago sortu dira, dagoeneko. Diodana da ugalketa lagunduaren bitartez haurrak sorrazteaz gain, gure kultura eta mundu ikuskera birsortzen eta indartzen ditugula.

Zergatik da interesgarri ugalketa lagunduari buruzko diskurtsoak aztertzea?

Kontua da ugalketa lagunduaren kasuan diskurtsoen eraikuntza oso begi-bistakoa dela eta informazio asko ematen duela. Esaterako, haurdunaldi subrogatuez hitz egitean gurasotasunaren pisu guztia material genetikoan jarriko da: zure haurra da, zure geneak dituelako. Klinika berberetan, ordea, obuluen donazio bidezko ugalketen kasuan, enfasia haurdunaldian jarriko da: bederatzila hilabete horiek dira egiazki bat ama bihurtzen dutenak, hor eraikitzen baita haurraren eta amaren arteko lotura. Paradoxa hauek ikusgarri egiten dute ugalketa ulertzeko gure modua nola negoziatzen den kulturaliki.

Zuk, bereziki, obuluen donazio bidezko ugalketa lagundua aztertu duzu. Azken urteetan obuluen dohaintzaren inguruan negozio bat garatu dela diozu.

Azken urteetan, lagundutako ugalketa bera asko hazi da, eta material biologikoaren inguruan merkatu-hobi berriak sortu dira. Espainiako Estatuan jaiotzen den haurren %8 da ugalketa lagundu bidez jaioa, eta in vitro tekniken bidez jaiotakoan artean lautik bat dohaintzan emandako obulu bidez sortu da. Baina kontua haratago doa. Espainiako Estatuak obuluen donazio sistema askoz merkantilizatuagoa du inguruko

estatuek baino; anonimoa da, eta konpentsazio ekonomikoa eskaintzen zaio emailari. Estatu batzuetan, Alemania kasu, debekatua dago. Beste batzuetan, Portugalen edo Erresuma Batuan, adibidez, donazioa ez da anonimoa. Herrialde batzuek ez dute konpentsazio ekonomikorik eskaintzen, Frantzia, esaterako, edo konpentsazio ekonomikoa ez da hain erakargarria, edo jendea ez da konpentsazioak merezi izateko bezain pre-

“

Ez da soilik antza bilatzen. Emailak hartzaileak baino normatiboagoak izatea bilatzen da: ederragoak, argalagoak, ez baxuegiak, azal argiagokoak...”

karioa. Espainian, berriz, baldintza guztiak betetzen dira klinika pribatuek negozioa egin dezaten, estatuko bertako kontsumoaz, zein ugalketa-turismoaz.

Zer eskaintzen da, zehazki, klinika pribatu hauetan?

Haur osasuntsu eta *bin-kulatuak* eskaintzen dira. Horretarako enbrioien hautaketa egiten da, noski, test genetikoaren bidez. Eta baztertzen direnak ez dira soilik aurrera egingo ez luketen enbrioia; baztertu egiten dira gure mundu ikuskeran akastunak diren enbrioia ere (Down sindromedunak, edo gorputz intersexualak sortuko dituztela dakigunak, esaterako).

Binkulatua izateari dagokionez, berriz, antza edukitzeaz ari gara. Emailen analisi genetikoetan oinarrituz, eta esperma eta obuluen koherentzia azterketak eginez, besteak beste, bilatzen dena da haurrak biologikoa ez den gurasoaren antza izatea. Bai bikote heteroetan, bai ama bakarren kasuan, eta

baita ama lesbianen kasuan ere. Hala, “geneak nahastu izanaren” ilusio optikoa bilatu nahi da, familia heteronormatibo perfektuaren ideiatik ahalbait hurbilen egon dadin familia hartzailea. Eta ez da soilik antza bilatzen dena. Izan ere, emailak hartzaileak baino normatiboagoak izan daitezke bilatzen da. Eder-ragoak, argalagoak, ez baxuegiak, azal argiagokoak... Honek ez du esan nahi klinika horietara jotzen duen jendeak hala eskatzen duenik. Ez da horrela. Are, badago ideia horrekin deseroso sentitzen den jendea ere, noski. Kontua da hau negozio modeloaren parte dela; eta jendearen ugalketa desioak betetzeko tratamenduak testuinguru horretan eskaintzen direla.

Eta obuluak, nork ematen dizkio nori?

Obuluen dohaintzaren bidez, ugalketarako gaitasuna gorputz gazteago batetik gorputz helduago batera igarotzen da, maizenik. Baina, baita gorputz prekarioago batetik posizio ekonomiko egonkorragoa duen gorputz batera ere. Horrek ez du esan nahi hartzaile guztiak klase altukoak direnik. Prekarioek ere izan dezakete jende prekarioagoa azpian.

Klinikek askotan emailak unibertsi-tate-ikasleak izan ohi direla adierazten dute, baina maiz ez da horrela izaten. Askok emakume prekarioak dira. Eta asko migratzaileak, nahiz eta azken krisi honen badiudien proportzioa beherantz doala. Koordinazio fenotipikorako, begi, ile eta azal kolore jakinak bilatzen dira, noski. Eta, esaterako, mediterraneo kostaldean, Europa ekialdeko migratzaileen obuluak nahi izaten dituzte gehienbat.



Zenbat ordaintzen dute, bada, obuluen dohaintza?

Mila bat euro inguru izan ohi da. Aurretiaz egin beharreko hormonatze prozesua eta tratamendua bera kontuan hartuta, oso gutxi da. Kontua da altruismoaren karta jokatzeko dutela klinikek. "Egin ezazu haurrik eduki ezin duten emakumeengatik". Konpentsazioaren ereduak altruismoa ulertzeko modu bat kapitalizatzen du. Generoaren oso lotutako altruismoaren ideia bat, hain zuzen. Gizonekin ez du funtzionatzen.

Zintzoagoak lirateke harreman batean oinarritutako dohaintzak, anonimotasunik gabeak (zuk zure ahizpari, koinata-ri edo lagun bati obulua eman nahi badiozu, aurrera). Hala egiten da hezur-muinaren transplantearekin. Zergatik ez obuluekin?

Bestela, lan esparruan kokatuko nuke kontua. Negoziario kolektiborako aukerarekin, beste edozein lanetan bezalaxe, arriskuen ebaluazioarekin, eta abar. Aukera horrek, gutxienez, agerian utziko

luke material biologiko horren merkantilizazioa. Konpentsazio-sistema honek obulua eskuratzeko adina diru eskaintzen du, baina material biologikoaren salerosketa merkatu bat dagoela baieztatze bezain gutxi. Eta bidean, alde batetik, naturalizatu egiten du emakumeek gauzak maitasunagatik egiten dituztela dioen diskurtso hori, eta bestetik, klinika pribatuak aberasten dira, haien kontura. Konpentsazioak izugarri apalak dira obulu horiek duten balio ekonomikoarekin alderatuta.

Espainiako Estatuak obuluen donazio sistema askoz merkantilizatuagoa du inguruko estatuak baino; anonimoa da, eta konpentsazio ekonomikoa du"

Merkatuen desioaz gain, badago, nonbait, ugalketarako laguntza eskaera handi bat ere, ezta? Zer dela eta ematen ari da hedatze hau?

Ugalketaren inguruan injustizia eta ezinegon ugari dago, eta horri aurre egin behar diogu, nolabait. Ugalketaren inguruko krisi batean gaude, eta ez ugalkortasun tasak apalak direlako.

Ugalketaren inguruko krisia gertatzen ari da zaintzaren eta haurren hazkuntzaren inguruko krisi batean ere

bagaudelako. Alde batetik aldaketa soziologiko handiak eman dira azken hamarkadetan, eta emakumeak merkatu produktiboan sartu dira. Beste aldetik, ordea, ez estatuek, ez sektore pribatuak eta ez gizonek ez dute haien gain hartu zaintza eta hazkuntza lanen ardura.

70eko hamarkadan in vitro ernalkuntza posible zela frogatu zenean, ugalkortasun arazoak konpontzeko ikusi zen baliagarri. Gaur egun batez ere gure bizimoduaren toxikotasunari eta ugalketa adinarekin gorakadari lotutako arrazoiengatik jotzen da teknika honetara. Nik ez diot ugalketa lagundua beharrezkoa izan ez daitekeenik, noski. Ez dago horretara jotzen duten pertsonak zertan epaitu. Baina, uste dut haurrak modu duinean hazi ahal izateko, eskatu behar dugula lan esparrua berregituratu eta zaintza sistemak egituratu daitezela. Eta ez ezinbestean ezinegon indibidualak klinika pribatuetan konpondu behar izatea.

Aldi berean, krisi honek aukerak ere zabaltzen ditu. Nazioarteko merkatua zabu-zabuka dabil, orain arau bat hemen, orain beste arau bat han, etengabe zezelka. Antolatzen bagara, une egokia izan liteke egoki ikusten dugun norabidean esku hartzeko. ●

Urtarrilekoa kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Urte osoko harpidetza | Hego Euskal Herria eta Espainia | 29€ • aizuEUS



Pentsio publikoen harira



BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI
EKONOMIALARIA

Berriki Toledoko Ituneko kideak adostasunera heldu ziren, etorkizuneko pentsio publikoak nolakoak izango diren finkatze aldera. Hainbat irizpide onetsi ziren legebiltzar zentralak kontutan izan ditzan.

Egiari zor, finkatutako zenbait irizpide baikorrak dira, hala nola pentsioen urteroko igoera, eros ahalmena ez galtze aldera, Kontsumoen Prezio Indizearen (KPI) arabera egikarituko baita; edo pentsio kopurua zehazterakoan ekar-tzaile bakoitzaren lan-historiako 25 urte oparoenak kontutan hartzea. Alabaina, gobernu zentralak, berehala, iragazi zuen 25 urte horien ordez, 35 hartzea; horrela, bat batean, pentsio kopurua murriztuta geratuko litzateke.

Halaber, alde negatiboak ere baditu. Hasteko, pentsio publikoak finkatzeko filosofia aldaketa eskatu behar litzaike politikariei eta horri ez diote heldu. Izan ere, pentsio publikoen filosofia aldatu ordez eta horretarako zuzendu behar diren funts publiko gehigarriak aurkitu ordez, gastu publikoa konstantea edo nahiko aldagaitza dela aitortuko digute, eta kopuru hori banatu beharko da pentsiodunak etengabe hazten ari diren bitartean.

Pentsio publikoen filosofiaren aldaketak adierazi nahi du pentsioen zerbitzuak, beste edozein zerbitzu publiko bezala izan behar duela. Hau da: zergatik hezkuntza publikoa edo hitzartua, justizia, defentsa edo osasungintza estatuaren aurrekontuetan sartzen dira eta

Zergatik hezkuntza publikoa edo hitzartua, justizia, defentsa edo osasungintza estatuaren aurrekontuetan sartzen dira eta zerga orokorren bidez finantzatu, eta ez da berdin gertatzen pentsio publikoekin?

zerga orokorren bidez finantzatu, eta ez da berdin gertatzen pentsio publikoekin? Horretarako, pentsio publikoak interese ekonomikoko zerbitzu gisa aitortu beharko lirateke.

Pentsio publikoen trataera honen ondorioz, Gizarte Segurantzaren aurrekontua Estatuaren aurrekontu orokorrean sartuta egongo litzateke eta langile eta kapitalaren ekarpen ekonomikoak sarrera publikoen baitan kokatuta.


Pentsioen inguruko beste puntu bat ere hausnarketarako bidea ematen du eta berau jubilatze adina luzatzeko proposamenean datza. Gainera, adin hori luzatzearen truk diru sarrera opa-roagoekin sarituko litzateke jubilatua.

Nire uste apalean, lan aroa luzatzeko erabakia borondatezkoa izan behar luke eta behin urte kopuru bat lan egin ostean, eskubide osoa izan beharko litzateke pentsio gorena eskuratu ahal izateko eta beranduago jubilatua nahi duen pertsona diruz zigortu, lanpostuak libre utz ditzan. Eta erabat galarazi beharko lirateke erretiro aurreratuak, duela urte batzuk gertatzen zen bezala; salbuespena enpresa batek porrot egin ostean adineko langileak izango lirateke, beste lanpostu bat eskuratzeko ezinezkoa zaielako.

Bestalde, Toledoko Itun berriak pentsio pribatuei ateak irekitzeko zirrikitua ere zabaldu die eta arlo honetan sindikatuei jarraitu behar zaie, jarrera baitute ugazabekin hitzartzeko pentsio mota hauek, eratzerakoan berauen kudeaketan parte hartzea gogoko dutelako. Bestalde, harrigarria egiten zaigu ugazabek pentsio pribatuak sustatu gura izatea diru ekarpenak gauzatuz; aldiz, ez dute ekarpen gehiagorik egin nahi pentsio publikoak sendotzeko. Gainera, pentsio funts hauen inguruan bi motatako langileak azalduko lirateke, enpresa handietakoak eta txikietakoak, azken hauek zailtasunak izango lituzketelako funts horiek eratzeke. Halaber, pentsio pribatuak sustatzen direnean zerga abantailak egongo dira, hiritarron kaltetan, ogasunak diru publiko urriagoak eskuratuko baititu.

Hauek dira langile eta pentsiodunok, besteren artean, kontutan izan behar ditugun gai batzuk. Erne, beraz! ●

Heldukeria



ANTTON OLARIAGA



JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Borroka guztietan aliatuen paperak berebiziko garrantzia dauka, kontraesanak kontraesan. Zuria naiz eta hala ere antirrazismoan hasi nintzen militatzen. Mutil laguna nuela sexu aniztasunaren aldeko aktibismoa egiteari ekin nion ere. Ordea, noizbait haurra izan banintzen ere, ama izan arte ez naiz heldukeriaren bortxaz ohartu. Izan ere, zapalkuntza bizi dutenei subjektu politikoaren estatusa ukatzen zaienean zaila da aliatuak lortzea. Haurrekin gertatzen da hori gurean, baina baita ere zaharrek, desgaitasun intelektuala dutenekin edota gizaki ez diren animaliekin. COVID-19aren kudeaketak agerian utzi ditu botere ardatz horiek guztiak: heldukeria, adinkeria, kapazitismoa, espe-zismoa. Aitzitik, kalean gutxi ezagutzen dituzten hitzak dira, eta hori ere sintomatikoa da.

María José Capellín antropologoak BBVA siglak erabili zituen gizarte kapitalista patriarkalean boterea duen subjektua definitzeko: “*Blanco, Burgués, Varón y Adulto*” (txuria, burgesa, gizona eta heldua). Onartu behar dut azken letra horren esangura zela niretzat lausoena. Ama izan naizenean, ordea, haurren ikuspuntutik aztertu ditut lehen aldiz feminismoan pil-pilean dauden hainbat gai:

Amatasun eta aitatasun baimenen in-guruko eztabaidan, helduen kontzilia-zio beharrak eta erantzukidetasun falta jartzen dira erdigunean. PETRA Amatasun Feministak plataformak, ordea, salatu du hamasei asteko guraso-baimen parekide eta besterenezinen neurriak edoskitze naturala oztopatzen duela eta guraso bakarreko familietan jaiotakoak diskriminatzen dituela.

Haurdunaldi subrogatuaren eztabaidan ere korapilo berriak antzeman ditut: alde batetik, niretzat berebiziko garrantzia hartu duten erditze errespetatua, atxikimenduzko hazkuntza eta edoskitze naturalarekin bateraezinak direla; bestetik, epaileak debekuari tin-ko eusten dihonean (Frantzian gertatu den bezala), haurraren interes gorena-ren kalterako dela, haren familiaren-gandik aldendu eta adopzioan emango dutelako.

Indarkeria instituzional benetan bortitzak bizi dituzte haur askok eta askok, esaterako, etorkinen seme-ala-bek. Batzuk guraso barik hazten dira, Atzerriartasun Legeak berriz elkartzeko ezartzen dituen baldintza zorrotzen erruz. Espainiar estatuan jaio direnei ere ez zaie espainiar nazionalitatea aitortzen. Eta gurasoak paperik gabe badaude, umeak babes gabe geratzeko

arriskuan biziko dira.

Beste adibide bat motxiladun umeena da, alegia, lege antiterroristaren eta dispertsio politikaren biktimak. Katixa Agirre idazleak *Irati gurasoekin Euskal Herrian* kanpainaren manifestuan adierazi du haurren kontrako indarkeriaren erroa dela adingabeak bigarren mailako pertsona gisa kontsideratzea, “gurasoen ardura soilak edo gurasoen ondasunak edo gurasoen luzapen hutsak. Edozein kasutan ez dira kexatuko, ez dira gai, ahotsa altxatuta ere ez ditu inork entzungo”.

Hori sentitu du behin eta berriro Iru-ne Costumeroren alabak epaileei eta gizarte zerbitzuetako langileei kontatu dienean aita tratatu txar emaila duela. Dena den, amari tutoretza kendu diote Gurasoen Alienazio Sindromea (GAS) leporatuta eta aitarekin bizitzera behartu dute. Costumerok argi du GAS asmakizun matxistaren erroa zein den: justizia patriarkalarentzat bai emakumeak zein umeak gezurti hutsak direla.

Emakumeen eta haurren eskubideen borrokak uztartzeko Agirreren deiarekin bat nator: “Feminismoak ideia iraultzaile hau zabaltu zuen: emakumeak ere pertsonak dira. Antzeko lelo iraultzailea bota beharra dago: umeak ere pertsonak dira”. ●

Euskal orria



MIKEL IRIZAR
ANALISTA POLITIKOA

Euskal harria bere kabuz altxatu zuen Arestik; aldiz, euskal herria denon eginkizuna da. euskal hiriak ponte-ko ugari ditu, Atxaga tartean; aldiz euskal irria zuzenean lotzen da Porrotxeekin. euskal urrian agian, noizbait, neguko jau-regia hartuko dugu, eta Koldo Almandozek film bikaina egingo du hura kontatuz.

Euskal orriak prozesu bat gidatzeko ibilbidea marraztu behar du, Euskal Herria etorkizunera eramateko prozesuarena.

Errei politikoan finkatuta dago zein den gakoa: erabakimena, nori dagokion subiranotasuna eta nola bideratu subiranotasun gatazkak. EAEko Legebiltzarrean dagoen egitasmoa gako honi damaion erantzunaren arabera izango da funtsezkoa ala hutsala. Eusko Ikaskuntzak eta Institut d'Estudis Catalans-ek berriki egin duten nazioarteko jardunaldiak helburu zehatza zuen: subiranotasun gatazkak bideratzeko kode bat lantzea, Europak bere egin dezan. Eskozia berriro ate joka dabil, Brexitak ez dezan Europatik kanpo utzi. Eta Katalunian ez da desagertuko autodeterminazioaren alde metatu den indarra.

Errei sozialean pandemiak izoztu egin du mobilizazioa, baina agerian geratu da komunitatearen garrantzia elkar babesteko. Txertoa mundu mailakoa da, bai;

baina atzean edo bakarrik geratzen direnez arduratzea, hori hurbilean bakarrik egin daiteke. Eta gizartea mugiarazten duten gaiek hor diraute: jubilatutak eta pentsio duinak, feminismoa eta genero berdintasuna, Gure Esku/11gara eta erabakimena, Euskaraldia eta hizkuntza berdintasuna... Euskal orriak sustatu behar luke dinamika sozial hauen arteko artikulazioa eta bateratasuna, bakoitzak bereari ekinez komunitate garapenean eragiteko, elkarrekin, berdintasunera bidean. Euskal komunitate trinkoa eta aktiboa baita herri estrategiaren oinarria, eta estrategia hori gauzatzeko proiektu ororen ezinbesteko euskarria.

Bi erreiak beharrezkoak izanik, bien arteko uztardura da hirugarren gakoa. Gero eta gehiago aipatzen da lankidetzak publiko-soziala, hau da, erakunde publikoen eta gizarte eragileen artekoa. Autsartenek lankidetzazko gobernanta ere aldarrikatzen dute, alegia, deliberazio gune partekatuetan interes-taldearen norabideak eta lehentasunak adostea, gero adostutako hori bakoitzak bere esparruan gauzatu dezan. Finean, gizartearen ekimena eta erakundearen ahalmena, biak osagarritasunez baliatzea, herri estrategia bateratuaren mesedetan. Hor daukagu indarra, eta mundu globalizatuan duin irauteko aukera bakarra. ●

Tontorrak



LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI
IRAKASLEA

Mendian pixka bat ibili den guztia gertatu zaio halakorik: aldapan gora, tontorra huri ikusi eta poztu, ailegatu garelakoan. Baina aurrera joan ahala, konturatu gara mendi-gainak leku berean segitzen duela, guk metroak egin baditugu ere. Gailur engainagarriak dira horiek, begi bistan daudenak, baina lepotxoak edo dituztenez, helburua bertan dagoela iradokitzen digute, gezurra izan arren.

Iazko martxotik ere hala gabiltza. 2021. urtean sartu gara, aurrekoa gainetik kendu guran, gaitz guztien panazea balitz moduan zifra aldaketa. Gutxi fal-

ta delakoan beti, tontorra toki berean, ukiezin.

Gailurra pandemia aurreko bizitza da, eta iragan denbora dugu helmuga. Konfinamendu osoak tontorra hurbil ikusarazi zigun. Ondoren, udako eguraldiak. Orain txertoak.

Txertoaren promesetik begiratzen diogu maskara bako tontorrari, berehalakoan iritsiko garela sinistuta. Geratzen zaiguna, ordea, luze eta infinitua egingo zaigu, amaiera agerian egon arren, pazientzia eskatzen digulako, hainbatek saldutako ilusio hutsa delako, astoaren azenarioa.

Gailurra zapaltzeko esperantza ez delako egonezinak zapuztu. ●

Negazionistak



IÑAKI BARCENA HINOJAL
EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

2020 urte pandemikoan, negazionismo eta negazionista kontzeptuen erabilera biderkatu egin da oso, eta nago kontzeptuaren jatorriaz, esanahiaz eta erabileraz sakontzea merezi duela, batez ere jakiteko zertaz ari garen polemika sortzen denean. Hitzegiak dio negazionismoa dela zientifikoki frogatuta dauden errealtate edo ebidentzia historikoak ukatzea edo ezeztatzea, egitate deseroso bat ekidin edo saihesteko asmoz. Horrela, batzuek juduen edo armenioen holokaustoak ukatu dituzte eta beste batzuek eboluzioaren teoria darwinista, kreazionismoaren defentsa eginez.

Klima aldaketa. Azken hamarkadetan, enpresari, politikari eta zientzialari gutxi batzuek Lur planetaren berotze efektu antropogenikoa ukatu dute. Gure inguruko adibide bat gogoratze arren, 2008an Václav Klausen eta José María Aznarrek, FAES fundazioaren ekitaldi batean *Planeta azul, no verde* (Planeta urdina, ez berdea) liburua aurkeztu zuten, lehenengoak, Txekiako presidentea ohiak, testua idatzita, eta bigarrenak hitzaurrea. Euren aburuz, ekologismoa komunismoaren ondotik datorren tota-

Gizadiak bizitzaren
erreprodukzioaren
mugak eta bizitza
bera sostengatzen
duten ziklo naturalak
errespetatu ezean,
kolapsoa ekidinezina da

litarismo berria da eta horregatik klima aldaketaren teoria arriskutsua da, guztiz. Bushek, Trumpek edota ExxonMobil petrolioaren multinazionalak ere negazionismo klimatikoaren aldeko jarrerak babestu dituzte konplexurik gabe, nahiz eta minoritarioak izan.

Gutxiengoan daude, gaur egun azterketa eta diskurtso zientifikoek inoiz baino gehiago ekologismoaren tesiak berresten dituztelako. Krisi ekologikoa ezin da ukatu Antropozenoaren garaian

eta gure zibilizazioak Naturaren mugekin topo egiten du behin eta berriz.

Negazionista nagusiak. COVID-19aren etorrerarekin negazionismoaren agerpena komunikabide eta sare sozialetan nabaria izan da. Baina ikusi dugunez negazionisten artean oso publiko eta eragile desberdinak ageri dira konspirazioaren teoriak erabiltzen, maiz modu kontrajarrrian. Aldiz pandemiaren sorburua argitzeko azalpen zientifikorik onena gure espezieak eragindako bioaniztasun krisian oinarritutakoa dela uste dut. Gizadiak bizitzaren erreprodukzioaren mugak eta bizitza bera sostengatzen duten ziklo naturalak errespetatu ezean, kolapsoa ekidinezina da.

Horregatik negazionista nagusiak eta kaltegarrienak, nire iritziz, ez dira "konspiranoikoak", baizik eta krisi pandemiko hau gertakizun partikular eta isolatu bezala ikusten duten lider politikoak, teknologiaren laguntzarekin soilik (txertoak, digitalizazioa, 5G...) egoera kritiko hau gaindituko dugula diotenak, eta bide batez kontrol soziala, hazkundera eta etekin ekonomikoa bilatzen dituzten korporazioak. Horiek bizitza duina ukatzen dute. ●



euskal eskola publikoa

NIREA
ZUREA
DENONA

aurrematrikula
urtarrilaren 18tik 29ra

www.euskadi.eus/hezkuntza



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

“Kazetari guztiak beldurtzea da Assangeren aurkako epaiketaren helburua”

NILS MELZER

NBEko torturaren inguruko kontalari berezia

Nils Melzer NBEko torturaren inguruko kontalari bereziak Julian Assange kazetariaren kasua ikertu du. Ikerketa horren xehetasunak azaldu zituen lehen aldiz 2020ko otsailean Suitzako Republik hedabide independenteko Daniel Ryser kazetariak egindako elkarrizketa zorrotz eta sakonean. Gutxitan ikusitako nazioarte mailako jukutria polizial, judizial eta mediatikoa salatu zuen Melzerrek, AEBek eta haren interesen meneko herrialdeek sustatuta.

Suedian asmatutako bortxaketa kasua, Erresuma Batuen presioa kasuari eusteko, epaile partziala, zazpi urteko itxialdia Ekuadorrek Londresen duen enbaxadan, espioitza, segurtasun goreneko espetxealdia COVID-19 garaian, tortura psikologikoa... Hau guztia bizi izan du Wikileaks sortzaileak eta aurpegiak ezagunenak, Julian Assange kazetari eta aktibista australiarrak, azken 10 urteotan.

Egun Londresko kartzela batean giltzapetuta jarraitzen du, pasa den astean AEBetara estraditatzeko auzian lehen garaipena lortu badu ere. Garaipentzat har badaiteke, ez estraditatzeko arrazoia izan dela bere buruaz beste egiteko arriskua, epaileak aitortu bezala. AEBek errekurtsua prest dute.

 DANIEL RYSER / REPUBLIK



Zergatik piztu dio interesa Julian Assangeren kasuak NBEko torturaren inguruko kontalari bereziari?

Nire betebeharren barruan dago kasua, hiru modutan: lehenik, Assangek tortura sistematikoaren frogak argitaratu zituen. Baina torturaren erantzuleak jazarri beharrean, Assange jazartzen ari dira. Bigarrenik, bera hain gaizki tratatu dutenez, tortura psikologikoaren sintomak ditu orain. Eta hirugarrenik, AEBetara estraditatu dezakete eta bera bezalako pertsonen han ezartzen dizkien espetxe-baldintzak tortura gisa definitu ditu Amnistia Internazionalak.

Zergatik ez zenuen kasua askoz lehenago onartu?

Imajinatu gela ilun bat. Bat-batean, gerrako kriminalak eta ustelkeria irudikatzen dituen gelan norbaitek elefante bat argizatzen du. Fokuari eusten dion gizo-



H. NICHOLLS / REUTERS

na Assange da. Gobernuak, aldi txiki batez shock egoeran geratu ostean, fokua beste norabait bideratu dute bortxaketa salaketan bitartez.

Bat-batean, denok badakigu Assange bortxatzailea dela, hackerra, espioia eta nartzisista. Baina aurkitu zituen gehiegikeriak eta gerra-krimenak iluntasunean desagertu dira. Nik ere galdu nuen ikuspegia, lan arlo honetan esperientzia izan arren; erneago egon behar nuen.

Hasieratik abiatuko gara: zer bultzatu zintuen kasua hartzera?

2018ko abenduan, Assangeren abokatuek esku hartzeko eskatu zidaten. Hasieran, uko egin nion. Julian Assange nolabait erruduna zela eta manipulatu nahi ninduela iruditzen zitzaidan orduan – hein handi batean komunikabideek baldintzatuta –.

2019ko martxoan, abokatuak bigarren

aldiz hurbildu zitzaizkidan. Dokumentu garrantzitsu batzuk eta kasuaren laburpena bidali zizkidaten, eta nire behar profesionalak materialari gutxienez begiratu ematea eskatzen zuela pentsatu nuen.

Zer gertatu zen orduan?

Berehala agerian geratu zen zerbait ez zegoela ondo. Afera legeletan dudaren esperientzi luzeak esaten zidan zentzurik ez zuen kontraesana zegoela: kargurik ez bada sekula aurkeztu, zergatik dago bederatzi urtez pertsona baten aurkako ikerketa bat zabaldua bortxaketa delituagatik?

Ezohikoa al da?

Horrelako kasurik inoiz ikusi gabea naiz. Edonork abia dezake beste pertsona baten aurkako aurretiazko ikerketa bat poliziengana joan eta delitu bat leporatuz gero. Hala ere, Suediako agintariek ez

zuten inoiz Assangeren testigantzarekiko interesik agertu. Linboan utzi zuten propio. Imajina ezazu bederatzi urte eta erdiz estatuko aparatu osoak eta komunikabideek emakume bat bortxatu izana egozten dizutela, zeure burua defendatzeko aukerarik izan gabe, kargurik ez baitzen inoiz aurkeztu.

Suedieraz jariatasunez hitz egiten dut eta jatorrizko dokumentu guztiak irakurri ahal izan nituen. Ezin nuen sinetsi arkurri nuen: emakumearen testigantzaren arabera, ez zen inoiz bortxaketarik gertatu. 2010eko abuztuaren 20an, S.W. izeneko emakume bat Stockholmeko komisaldegian sartu zen, A.A. izeneko beste emakume batekin batera, esan zuen Julian Assangerekin sexu-harremanak izan zituela, baina ez zuela kondoirik erabili. Esan zuen kezkatuta zegoela GIBarekin kutsatuta egon zitekeelako, eta jakin nahi zuen ea Assange behartu zezakeen

GIB proba bat egitera. Polizien galdeketa amaitu baino lehen ere, S.W.ri jakinarazi zioten Assange atxilotu egingo zutela bortxaketaren susmopean. S.W. harritu egin zen eta uko egin zion galdeketa-ekin jarraitzeari. Komisaldegian zegoela, emakumeak mezu bat idatzi zion lagun bati, esanez ez zuela Assange inkrinatu nahi, berak GIB proba egitea baino ez zuela nahi, baina, antza denez, Poliziaren nahia "Assange harrapatzea" zela. Bi ordura, kasua egunkari batean ateratu zen. Egun, badakigu fiskalek filtratu zutela informazioa prentsara eta Assange deklaratzera deitu gabe egin zuten.

Eta ez hori bakarrik: gero, Stockholmeko Poliziak emakumearen testigantza aldatu egin zuen, emakumeak parte hartu gabe, nolabait bortxaketa irudika zezan.

Zergatik egingo lukete horrelakorik Suediako agintariak?

Unea erabakigarria da: uztailaren amaieran, Wikileaks-ek, nazioarteko hainbat hedabidearekin elkarlanean, *Afganistango Gerraren egunerokoa* argitaratu zuen. AEBetako armadaren historiako informazio filtrazio handienetako bat izan zen. Berehala, AEBek euren aliatuei exijitu zien Assange auzi kriminalerantz josteko. Stratforrek, AEBetako Gobernuarentzat lan egiten duen segurtasun aholkularitzak, gauza bera egiteko aholkatu zien AEBetako funtzionarioei: hurrengo 25 urteetan Assangeri mota guztietako kasu kriminalak leporatzea.

Nondik dator Assangek Suediako justiziari ihes egin nahi ziola dioen istorioa?

Bertsio hau fabrikatu egin zuten, eta ez da koherentea gertakariekin. Bere burua ezkutatzan saiatu izan balitz, ez zen bere borondatez polizia-etxean agertuko.

Assangek behin baino gehiagotan adierazi zuen, abokatuaren bitartez, akusazioei erantzun nahi ziela. Fiskal arduradunak gaia atzeratzen jarraitu zuen. Behin, ez zetorkiolako ongi bere ordutegiarekin, edo beste batean, polizia arduraduna gaixorik zegoelako. Harik eta, Assangek Berlinera hitzaldi batera joan behar zuela eta, bere abokatuak herrialdea uzteko baimena ote zuen galdetu zuen. Fiskal publikoaren bulegoak baime-na eman zion, idatziz, Suediatik denbora laburrez irteteko.

Eta orduan?

Julian Assange Suediatik irten zen egunean, epe labur edo luzerako joango zen

argi ez zegoen une batean, atxilotzeko agindua eman zuten. Scandinavian Airlines-eko hegaldi batean bidaiatu zuen Stockholm-etik Berlinera. Hegaldian zehar, bere ordenagailu eramangarriak desagertu egin ziren fakturatutako ekipajetik. Auzi honetan, beti posible ez diren gauzak gertatzen dira, bestelako angelu batetik begiratzen ez badituzu behintzat.

Assangek Londrerantz jarraitu zuen, baina ez zen botere judizialek ezkutatzan saiatu. Suediako abokatuaren bidez, fiskalei zenbait data eskaini zien Suedian galdeketa egiteko: gutun horiek existitzen dira. Ondoren, honako hau gertatu zen: Assangek jakin zuen AEBetan bere aurkako kasu kriminal sekretu bat ireki zutela. Une horretatik aurrera, Assangeren abokatuak esaten hasi zen bere bezeroa Suedian lekukotza emateko prest zegoela, baina Suediak AEBetara estraditatu ez zuen berme diplomatikoak exijitu zituen.



Wikileaks-ek egin zuena mehatxua da AEBetako, Britainia Handiko, Frantziako eta Errusiako elite politikoentzat"

Gerta al zitekeen benetan hori?

Erabat. Urte batzuk lehenago, Suediako segurtasun-langileek bi asilo-eskatzaila -biak Suedian erregistratuak- entregatu zizkieten CIAri, legezko prozedurarik gabe. Abusua Stockholmeko aireportuan hasi zen, han tratatu txarrak eman, drogatuta eta Egiptora eraman zituzten. Han torturatu egin zituzten. Ez dakigu kasu bakarrak izan ote ziren, baina kasu hauek ezagutzen ditugu bi pertsona horiek bizirik ateratu zirelako. Suediak milioi erdi dolar ordaindu behar izan zion bakoitzari kalte-ordain gisa.

Onartu al zituen Suediak Assangeren eskariak?

Abokatuak diotenez, Assange Ekuadorreko enbaxadan bizi izan zen zazpi urteetan, 30 eskaintza baino gehiago egin zituzten Assangek Suediara joateko, AEBetara ez estraditatzeko bermearen

truke. Suediarrek uko egin zioten bermea emateari, AEBek ez zutela estradizio eskaera formalik egin argudiatuz.

Suediak ez zuela inoiz egia aurkitzeko interesik izan beste zantzu bat da hori. Berme diplomatiko horiek ohiko praktika dira nazioartean. Hain zuzen ere, Erresuma Batuen eta Suediaren arteko lankidetzaren bat dago gai judizial horietarako, eta, horren arabera, galdeketa egiteko Suediako funtzionarioek Erresuma Batua bidaiatzea deza, baita alderantziz ere, edo galdeketa bideokonferentziaz egin dezakete.

Denbora-tarte horretan Suediaren eta Erresuma Batuen artean 44 kasutan egin ziren mota horretako galdeketa. Julian Assangeren kasua salbuespena izan zen, horretan Suediak adierazi zuen ezinbestekoa zela bera Suediara pertsonalki joatea.

Zergatik gertatu zen horrela?

Azalpen bakarra dago horretarako: atxilotu egin nahi zuten AEBetara estraditatu ahal izateko, eta horregatik berme diplomatikoak emateari eta Londresen galdeketa egiteari uko egin zieten. Aurretiko ikerketa kriminalaren lehen asteetan Suedian erregistratutako arau-hausteen kopurua asaldagarria da. Estatuak lege-aholkulari bat ezarri zien emakumei, eta esan zien haiek bizi izan zutenaren interpretazio kriminala estatuen esku zegoela, eta ez beren esku.

Baina bost urte luzez, Suediako Fiskaltzak saihestu egin zuen Assange ustezko bortxaketaren inguruan galdeketa, bere abokatuak Suediako Gorte Gorenari eskatu zioten arte Fiskaltza behartzeko zirt edo zart egitera: karguak aurkeztu ala kasua itxi. Suediarrek esan ziotenean Erresuma Batuari kasua uztera behartuta egon zitezkeela, britainiarrek kezka erantzun zuten: "Ez ausartu gero atzera egin!"

Zergatik zeuden britainiarrak hain kezkatuta nola edo hala suediarrek kasua itxi ez zezaten?

Pentsatzeari utzi behar diogu sexu-delitu bati buruzko ikerketa egiteko interesa zegoenik. Wikileaks-ek egin zuena mehatxua da AEBetako, Britainia Handiko, Frantziako eta Errusiako elite politikoentzat.

Har dezagun Wikileaks-ek kasu arketipikoa, Chelsea Manning-ek emandako informazio filtrazioetatik lortutakoa: *Albo-hilketa* bideoa. 2010eko apirilaren 5ean, Wikileaks-ek AEBetako armadaren bideo klasifikatu bat argitaratu zuen. Hor

ikusten zen nola Bagdaden AEBetako sol-datuek nola hil zuten hainbat pertsona, tartean Reuters agentziako bi kazetari. Denbora luzez aritu naiz Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordean lege-aholkulari eta gerra-eremuetan ordezkari eta esan diezazueket, ezbairik gabe, bideoak gerra-krimen bat dokumentatzen duela.

“Zaurituta dago”, dio soldadu estatubatuar batek. “Tiro egiten ari naiz”. Eta gero barre egiten dute. Ondoren, kamioi bat iristen da zaurituak salbatzera. Gidaria bere bi seme-alabekin dago. Soldaduak entzuten dira esaten: “Tira, haien errua da seme-alabak gerrara ekartzeagatik”. Eta gero tiro egiten diete.

Zer egin behar dute demokrazia konstituzionalek egoera horren aurrean?

Demokrazia konstituzionalak Chelsea Manning ikertuko luke sekretu ofiziala urratzeagatik, bideoa Assangeri pasatu ziolako. Baina, ez zen Assangeren atzetik joango, bideoa interes publikokoa zelako argitaratu baitzuen, ikerketa kazetaritzaren ohiko praktikaren arabera. Hala ere, beste ezerren gainetik, demokrazia konstituzional batek gerra kriminalak ikertu

eta zigortuko lituzke. Soldadu hauek espetxean egon beharko lukete. Baina ez zen ikerketa kriminalik hasi.

Aitzitik, behin-behineko espetxealdian dago Londresen publikoari informazioa eman zion gizona, eta AEBetan 175 urteko kartzela-zigorra jaso dezake. Konparaziorako: Jugoslaviako tribunalean gure kriminal nagusiak 45 urteko zigorrak jaso zituzten. Sekula ez dituztela zigortuko pentsatuz, beldurrik gabe hil dezakete jendea boteretsuek. Kazetaritza espioitza bihurtu dute. Egia bera esatea krimen bihurtzen ari dira.

Assange estraditatzuz gero, zerekin egingo du topo AEBetan?

Ez du zuzenbidezko estatu baten araberrako epaiketarik jasoko. Horixe da estradizioa ez onartzeko beste arrazoi bat. Assange epaituko dute Alexandrian, Virginian, “Espioitza Auzitegi” ospetsuan, han epaitzen dituzte AEBek segurtasun nazionalako kasu guztiak. Auzitegiaren kokalekua ez zuten ausaz aukeratu, epaimahaikideak tokiko biztanleriaren artean aukeratu behar direlako eta Alexandriako herritarren % 85ak segurtasun nazionalarekin lotutako erakundeetan lan egiten

dutelako: CIAn, NSAn, Defentsa Sailean eta Estatu Departamentuan.

Kasuak beti epaile beraren aurrean egiten dira, ateak itxita eta froga guztiak ezkutuan mantenduta. Horrelako kasuetan ez dute inoiz inor absolbitu. Ondorioz, akusatu gehienak akordio batera iristen dira, erruaren parte bat onartuz zigor arinagoa jasotzeko.

Apirilean, Erresuma Batuko Poliziak Julian Assange Ekuadorko enbaxadatik aterarazi zuen.

Zer iritzi duzu?

2017an Ekuadorren gobernu berria aukeratu zuten. Horren ostean, AEBek gutun bat idatzi zuten adieraziz Ekuadorrekin elkarlanean aritzeko irrikaz zeudela. Dirutza zegoen jokoan, noski, baina bidean oztopo bat zegoen: Julian Assange.

Enbaxadatik kanporatzea goizetik gauer gertatu zen, legezko prozedurarik gabe. Assangek ez zuen adierazpen bat egiteko aukerarik izan, ezta legezko prozedura batera jotzeko ere. Britainiarrek atxilotu eta epaile britainiar baten aurrean eraman zuten egun horretan bertan, eta baldintzapeko askatasunaren baldintzak urratzeagatik zigortu zuten.



2016ko azaroan izendatu zuten Nils Melzer NBEko torturaren inguruko kontalari berezia.



2010ean komunikabide handi batzuen laguntzarekin, dokumentu "sekretuen" historiako filtrazio zabalenetako bat argitaratu zuen WikiLeaks.

Assangek 15 minutu besterik ez zituen izan bere abokatuarekin batera kasua prestatzeko. Epaiketa bera ere 15 minutukoa izan zen. Assangek esaldi bakarra esan zuen prozesu osoan: "Errugabea naiz". Epaila harengana bideratu zen eta esan zion: "Zure interesetatik harago ikusteko gai ez den nartzisista zara. Baldintzapeko askatasuna urratzeagatik, errudun jotzen zaitut".

Ondo ulertzen badut, hasiera-hasieratik Julian Assangek ez zuen aukerarik izan.

Hori da gakoa. Ez dut esan nahi Julian Assange aingerua edo heroia denik. Kontua ez da hori. Giza eskubideez ari gara, eta ez heroien edo aingeruen eskubideez. Assange pertsona bat da, eta bere burua defendatzeko eta gizalegez tratatua izateko eskubidea du. Zer leporatzen zaion alde batera utzita, Assangek bidezko epaiketa bat izateko eskubidea du. Baina nahita ukatu diote eskubide hori: Suedian, AEBetan, Britainia Handian eta Ekuadorren. Aitzitik, ia zazpi urtez gela bateko linboan usteltzen utzi zuten.

Bistakoa da Assangeren kasua jazarpen politikoa dela. Britainia Handian, baldintzapeko askatasuna urratzeagatik egindako arau-hausteak oso gutxitan zigortzen dira espetxera bidaliz; normalean, isunak besterik ez dira. Assangek, aldiz, prozesu azkar batean, 50 asteko zigorra jaso zuen segurtasun handiko espetxe batean. Zigor neurrigabea da, argi eta garbi, eta helburu bakarra zuen: Assange behar beste denbo-

raz lotuta izatea AEBek bere kontrako espioitza kasua prestatu bitartean.

Torturaren inguruko NBeko kontalari berezia zaren aldetik, zer esan duzu esateko bere espetxe-baldintzei buruz?

Britainia Handiak ez dio Julian Assangeri baimenik eman AEBetako bere abokatuarekin harremanetan jartzeko. Bere abokatu britainiarra ere kexatu egin da, ez duelako dokumentuak eta froga judizialak aztertzeke bezeroarekin egoteko aukera nahikorik. Urrian ez zioten utzi bere espedienteko dokumentuak ziegan edukitzea. Defentsa prestatzeko oinarriko eskubidea ukatu zioten, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak bermatzen duen bezala. Baldintzapeko askatasuna urratzeagatik ezarritako zigor gisa erabat neurrigabea da. Gainera, ia erabateko konfinamenduan dago kartzelan. Bera ziegatik irten bezain laster, korridoreak husten dituzte, beste preso batzuekin ez dezan kontakturik izan.

Zein unetan bihurtzen da espetxeratzea tortura?

Suediak, Britainia Handiak, Ekuadorrek eta AEBek propio torturatu dute psikologikoki Julian Assange. Suediak ez du inoiz egia aurkitzeko interesik izan, ezta hasierako salaketa jarri zuten emakumeak laguntzeko ere. Assange ezpata eta hormaren kontra jartzeko asmoa baino ez zuen.

Prozesu judizialez abusatu egin da, pertsona bat eramateko bere burua defendatu ezin duen egoerara. Horretaz gain, herrialde horietako zaintza-neurriak,



irainak, umiliazioak eta politikarien erasoak daude, baita heriotza-mehatxuak ere. Estatuak botereaz etengabe abusatu izanak estres- eta antsietate-egoera larria eragin diote Assangeri, eta ondorioak argiak dira: kalte kognitibo eta neurologikoak.

2019ko maiatzean Assange bisitatu nuen Londresko ziegan, torturaren biktimen azterketa forentse eta psikologikoan espezializatutako eta esperientzia handiko bi medikuekin. Bi medikuek diagnostiko argia egin zuten: Julian Assangek tortura psikologikoaren ohiko sintomak dauzka. Laster babesik jasotzen ez badu, litekeena da bere osasuna azkar hondatzea eta hil egin liteke.

Britainia Handian behin-behineko espetxealdian sartu eta urte erdira, isil-isilean, Suediak Assangeren kontrako auzia laga zuen, bederatziz urte luzeren ondoren. Zergatik?

Suediako Estatua ia hamarkada batez aritu zen Julian Assange jendaurrean sexu gaizkile gisa aurkeztzen. 2019ko azaroan, bat-batean, kasua bertan behera utzi zuten.

Baina sinkronia ez zen ustekabekoa izan: azaroaren 11n argitaratu egin zen nik bi hilabete lehenago Suediako Gobernuari bidalitako dokumentu ofizial bat. 50 bat gairi buruzko azalpenak emateko eskatu nion dokumentuan gobernuari. Nola da posible susmoa besterik ez zena publiko egitea, akusatuari galdeketa egin gabe? Nola esan dezakezu bortxaketa bat gertatu zela, emakumeak gertaeren bertsiio hori inpu gnatu arren?



Julian Assange, Chelsea Manning eta Edward Snowden irudikatzen dituen artelan baten inaugurazioan parte hartu zuen Nils Melzerrek Berlinen 2019ko azaroan.



2020ko otsailean Iruñean Assangeren askatasunaren alde elkarretaratzea egin zuen internazionalistak auzolanean taldeak. Argazkia: Ahotsa.info

Dokumentua publiko egin zen egunean, Suediaren erantzun miseralea jaso nuen: gobernuak ez du kasu honi buruz ezer gehiago esango.

Zer esan nahi du erantzun horrek?

Beren errua onartzeko era da.

Nola?

NBEko kontalari bereziak torturari buruz aurkeztutako galderak erantzuteari uko egiten dihonean Suedia bezalako herrialde batek, bere jokabidea legez kanpoko delat eta ez duela ardurarik hartu nahi erakusten ari da gobernuak.

Gauza bera gertatzen da britainiarrekin: 2019ko maiatzean Assangeri egin nion bisitaren ondoren, sei hilabete behar izan zituzten niri erantzuteko. Orrialde bakarreko erantzun horretan tortura salaketa guztiak eta lege-prozeduretan izandako akatsak errefusatu besterik ez zuten egin.

Gauzak horrela eginda, zein da nire lanaren zentzua? Torturaren inguruko Nazio Batuen kontalari berezia naiz. Galdera argiak egiteko eta erantzunak exijitzeko agindua daukat. NBEko estatu kide horietatik inork ez zuen ikerketarik hasi, ez zituzten nire galderak erantzun, eta ez zuten elkarriketarako interesik erakutsi.

Zer esan nahi du NBEko estatu kideek beren kontalari bereziari torturari buruzko informazioa eman nahi ez izateak?

Aldez aurretik adostutako gaia dela. Espektakulu gisa erabiliko da epaiketa Julian Assange adibide gisa jartzeko. Hel-

burua beste kazetariak beldurtzea da. Beldurra, bide batez esateko, mundu osoan tortura erabiltzeko helburu nagusietako bat da mundu osoan. Denontzako mezua hau da: Wikileaks egiten duena egiten baduzu haxe gertatuko zaizu.

Oso eredu arriskutsua da. Gobernuetatik edo enpresetatik informazio konfidentziala lortzen dutenek informazio hori Wikileaks berbidatzen diote, baina salatzaileak anonimoki jarraitzen du. Estatuaren erreakzioak erakusten du zein handia den mehatxua: lau herrialde demokratikok indarrak batu zituzten (AEBak, Ekuador, Suedia eta Erresuma Batua) beren boterea baliatuta, gizon bat munstro gisa irudikatzeko eta gero sutan erre ahal izateko, inork protestarik egin gabe. Auzia eskandalu hutsa da eta Mendebaldeko zuzenbide estatuaren porrota adierazten du. Julian Assange zigortzen badute, heriotza zigorra ezarriko diote prentsa askatasunari.

Kazetaritzaren etorkizunean zertan eragin lezake aurrekari horrek?

Maila praktikoan, zuk, kazetari zaren aldetik, orain zeure burua defendatu behar duzula esan nahi du. Izan ere, ikerketa-kazetaritza espioitza gisa sailkatzen bada eta mundu osoan jazarria izan badaiteke, zentsura eta tirania gailenduko dira. Sistema hiltzaile bat sortzen ari da geure begien aurrean. Gerra eta tortura krimenak ez dira jazartzen ari.

Youtubeko zenbait bideotan, bortxaketa sistematikoen bitartez emakume irakarrak suizidiora nola bultzatzen ari diren harro agertzen dira AEBetako sol-

daduak. Inor ez da hori ikertzen ari. Aldi berean, horrelako kasuak azaleratzen dituen pertsona bat 175 urteko espetxe-zigorarekin mehatxatzen ari dira. Hamarkada oso batez, frogatu ezin diren salaketez josi dute. Bera akabatzen ari dira eta inor ez da erantzule egiten.

Sekretismo neurrigabe horren ondorioa da Wikileaks, gure sistema politiko modernoaren gardentasun falta islatzen du. Zenbait eremutan, jakina, sekretua funtsezkoa izan daiteke. Baina ez bada kigu gure gobernuak zer egiten ari diren, zer irizpide jarraitzen ari diren, krimenak ikertzen ez badira, orduan arrisku larria da gizarte osoarentzat.

Gizakiak berez ez dira demokratikoak. Boterea usteldu egiten da gainbegiratzen ez bada. Ustelkeria agertzen da boterea kontrolatzen tematzen ez garenean.

Zeintzuk dira ondorioak?

Torturen inguruko NBEko kontalari berezi gisa eta, horren aurretik, Gurutze Gorriaren ordezkari gisa, izugarrikeria eta indarkeria asko ikusia naiz, eta ikusi dut Jugoslavia edo Ruanda bezalako herrialde bakesuak zein azkar bihur daitezkeen infernu.

Kasuen sustraian beti daude garden-tasunik eza eta botere politiko edo ekonomiko neurrigabea, biztanleriaren xalotasuna, axolagabekeria eta malgutasunarekin batera. Bat-batean, beti besteari gertatu izan zaiona (tortura, bortxaketa, kanporatzea eta zigorrik gabeko hilketa) erraz gerta dakiguke guri edo gure alaba-semeei. Eta inori ez zaio axolako. Zin dagizut horrela dela. ●

ETXEBIZITZAREN ALDEKO BORROKA

Arazo zaharrari, antolakuntza molde berriak

Mezurik helarazi badigute ase arte azken hilabeteetan, izan da etxean geratzekoa. Alabaina, lau pareta artean ixteko agindu diguten arren, etxebizitza ez digute berme bilakatu. Martxoan aurretik ere etxebizitza geroz eta eskuragaitzago ari bazen bilakatzen, pandemiak larriagotu egin du arazoa: langabeziak gora egin du nabarmen, eta azken urteetan ikaragarri garestitutako alokairuen prezioak ez du beherako biderik hartu; alokairua ordaintzeko zailtasuna geroz eta etxe gehiagotan ari da ate-joka. Testuinguru horretan, eta datorren krisi ekonomikoan egoera are muturrekoagoa bilakatuko dela jakinik, konfinamenduaren bueltan etxebizitza sindikatuen eztanda jazo zen Euskal Herrian. Hilabeteetako ibilbidea egin duten honetan, zertan diren jakin nahi izan dugu.

 AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

1 903ko azaroa, Bilbo. Industrializazio garaia da, eta industriaguneak non, langileria hara. Aldaketa demografiko horrek hiriguneetako etxebizitza eskaera neurrigabe igotzea eragin du, eta eskaintza eskaria baino urriagoa izanik, hortxe ikusi du etxejabe hainbatek etekin ekonomiko are handiagoa ateratzeko parada, maizterren eta etxejabeen arteko harremana tenkatuz. Azaleratuz doan gatazkaren testigu dira garaiko egunkariak, antolatzen ari diren maizterren inguruan baitihardute. “Udalak jabetzaren gainean ezarritako zerga arbitrarioen ondorioz, zenbait etxejabeek hamar pezeta garestitu dute alokairua. Bizilagunak protesta baketsua egitekotan dira. Maizterren grebaz hitz egiten da”, irakur daiteke Kataluniako *Diario de Reusen*. Urte erdiren buruan, 1904ko uztailen, gauzatzear den maizterren mitin batek betetzen ditu zenbait egunkaritako lerroak, eta sasoi horretan sortzen da Bilboko Maizterren Batasuna, alokairuen merketzea exijitzeko asmoz. Maizterren borrokaren su bizi dago, eta ziurrenik su horren garra da 1905ean Barakaldon alokairuaren bueltako protestak ezandarazten dituen. Emakumeak buru dituen mobilizazioak alokairu greba bilakatuko dira, eta berorren aurrean alarma-egoera ezarriko dute agintariak.

XX. mendeko lehen hamarkadetan identifikatu dezakegu “maizterren borroken ziklo berri” baten abiapuntua, Jordi González Guzmánek eta Irene Sabaté Murielek *El Salton* zehaztu bezala, *Cien años de lucha por la bajada de los*

alquileres: el Decreto de 1920 (Alokairuak jaistearen aldeko ehun urteko borroka: 1920ko Dekretua) erreportajea. “Alokairu grebak sua nola barreiatzen ziren hiriz hiri, eta horien errautsetatik sortzen ziren maizterren sindikatu eta elkarteak”, dio garaiari erreferentzia eginez Alejandro Moralesek *El Topon* argitaratutako *Huelgas de Alquiler: Revoluciones a Punto Cero* (Alokairu grebak: Iraultzak zero puntuan) artikuluan. Sarrerako gertakariak lirake olatu berri horren hastapenak gurean izan zuen isla. Alabaina, Moralesek ñabartu nola, hauts horietatik sortuko diren hainbat esperientzia eta borroka “herri mugimenduen historia liburuetan zuriz ageri diren kapituluak” dira. Gurean ere, etxebizitzaren aldeko borrokaren hariari tira egitean antzeman daitezke hutsuneak, baina azken urteetako denbora lerroan identifikatu dezakegu etxebizitza eskubidearen aldeko zenbait adierazpide: besteak beste, urte luzez okupazio mugimenduaren aterkipean egon da etxebizitza eskubidearen aldeko borroka, eta 2008ko krisi ekonomikoaren ondotik ezandarazitako etxebizitza burbuilaren aurrean Hipotekeak Kaltetutako Plataformak eutsi zioten etxekaleratze oldeari. Berriki, ibilbide luzeko borrokari molde berriko zenbait talde batu zaizkio, eta maizterren sindikatu, talde edo sareak geroz eta ugariagoak dira Euskal Herriaren luze zabalean.

Oro har, bat egiten dute funtzionatzeko moduan: etxebizitzarekin lotutako arazoren bat duen kideari aholkularitza kolektiboa eskaintzen zaio, gataz-

kari aterabidea emateko asmoz, eta era berean alor horretan taldean dagoen jakintza kolektibizatuz. Prozesu horretan, gainera, indibidualizat aurkeztu ohi zai-gun problematikaren izaera egiturazkoa –eta ondorioz, kolektiboa– ageriko egiten dute, gaur arazoa duenak lagunduko baitio bihar gatazka batekin datorrenari, esperientziatik. Eta lanketa hori gauzatu bitartean, elkar-babesean eta autodefentsan trebatzen doa taldea, beronen eragiteko gaitasuna handituz.

KONFINAMENDUA ORDUKO ERNATZEN HASIAK

ARGIaren 2694. zenbakian argitaratutako *Koronabirusak lehertuko al du etxebizitzaren burbuila?* erreportajea jaso genuen etxebizitza sindikatuek Euskal Herrian izan duten ez-tandaren berri. COVID-19ak etxebizitza problematika nola areagotu zuen jasotzen zen bertan, eta erreferentzia egiten zitzaizkien testuinguru horri erantzun beharrean martxan jarritako sindikatuei. Duela bi urtetik

jardunean dabilen Gasteizko Etxebizitza Sindikatua alde batera, gainontzeko taldeak pandemia betean egin baitute agerpena. Horietako zenbaitekin mintzatu ginen konfinamendua igaro berrian, eta zenbait hilabeteko tartearen ostean berriz jo dugu zenbait talderengana, tarte honetako jarduna nola joan zaien jakin nahirik.

Azken hilabetez galdetzen diegunean, martxoa baino atzerago doaz mintzakide guztiak. Beren burua publikoki aurkeztu orduko emanak baitzeuzkaten lehen urratsak. Hots, etxebizitza sindikatuen loratzea ez da espontaneo eta egun batetik besterakoa izan. Ziurrenik, horretan izan du zerikusirik beste zenbait herrialdetan etxebizitzaren defentsan garatzen joandako sindikalgintzak. Hala dela ondorioztatu daiteke Galdakaoko Etxebizitza Sarearen hitzak adituz: “Kataluniara egindako brigada batzuetan, bertako esperientziak ezagutzeko aukera izan genuen. Auzo eta herrietan lortzen zituzten antolaketa ereduak eta borroka

-komunitateak sortzeko gaitasuna gurera ekartzea interesgarria izan zitekeela uste genuen”.

Zenbaitek, beste eragile batzuetan abiatutako lanketari segida emateko antolakuntza eredu aproposa aurkitu dute borroka molde honetan; hala da Bilboko AZET Alde Zaharreko Etxebizitza Taldearen kasuan. Azaldu dutenez etxebizitzaren auzia ez da berria beraientzat: “Piztu Bilbo dinamikatik gentozen, eta bertan sortu ziren AZET sortzera bultzatu gintuzten funtsezko ideiak: auzo pobreetatik eta behar indibidualei erantzun kolektiboa emanez planteatu nahi genuen klase borroka. Klase perspektibatik, auzodefentsa eta auzo-botere kodeetan”.

Pandemiak publikoki jardutera bultzatu besterik ez ditu egin taldeok, alegia. “Eskualdean bazegoen etxebizitzaren inguruan lanketa aurrera eramanez nahi zuen taldetxo bat, eta konfinamenduak horren aktibazioaren behar urgenteaz ohartzea eragin zuen”, dio Hego Uribeko Batu Elkarlaguntza Sareak. Hori bai, az-



AZET-ek deitutako prentsaurrekoa, kideetako batek etxejabe handi baten partetik pairatzen dituen abusua salatzen.



EZKERRETIK ESKUINERA: Galdakaoko sarea asanbladan bilduta, Donostiako maizterren mahai-inguruan, eta Batuko kideak Subete biltegia atontzen.

pimarratu dute hasieratik argi izan dute-la etxebizitza alorretik harago joan nahi zutela. “Sarea bizitzako beharrian guztiak asetzera bideratuta egon behar zela uste genuen”, azaldu dute. Ildo berean egin ditu adierazpenak AZETek: “Gure intentzioa ez da etxebizitzaren problematikara mugatzea, klase borrokaren adierazpide berrien abiapuntu gisa ulertzen dugu. Konfinamendua agindu zuten, eta koiuntura berri horretan, azken urteetako higiezinaren krisiari gehituko zitzaion osasun-krisiarekin, konturatu ginen etxebizitza izan zitekeela desjabetuon behar materialei erantzuna ematen hasteko arrakala”.

BEGIRADA INTEGRALA

Batu eta AZETek bezala, etxebizitzaz harago doan ikuspegia eta estrategia darabil Galdakaoko Etxebizitza Sareak ere. Etxebizitza arazoei erantzuten die herrian, baina era berean Batuko parteide da, iritzirik etxebizitzaren aldeko borroka partziala dela eta “beste problematika batzuk lantzen dituen kolektibo baten baitan egoteak ikuspegi zabalagoa edukitzea ahalbidetzen duela”.

Beren jardunak integrala izan behar duela argi dute Batun. Etxebizitza gizarte kapitalistan azaleratzen diren kontraesanak hobekien barnebiltzen dituen elementuetako bat bezala identifikatzen dute, eta hargatik daukate lan-lerroa irekita norabide horretan. “Etxebizitza bizitzaren erreproduktzioarako funtsezko elementu izanik, berau lortzeko eta mantentzeko edozein bide aldarrikatzea da

gure postura”, diote. Horrekin batera, baina, bestelako fronteak ere irekiak dituzte, etxebizitza “langileon biziraupenerako eta bizitzaren birproduktzioarako baliabidea” delako, “baina ez bakararra”. Horregatik egin zuten Subete Elkartasun Biltegia abiatzearen alde apustu, zeinaren bidez 50 pertsona ingururen elikadura eta garbiketa beharrianak ase dituzte gaur artean, inguruko herrietan bilketak eginez. Bide bera hartu du AZETek duela gutxi Asetu Herri Biltegia sortuta.

Argi mintzo da AZET: “Etxebizitzaren aldeko borroka ez daukagu helburutzat, baizik eta klase antolakuntza indarberritzeko bitartekotzat. Borroka-komunitatea antolatzeko helburuarekin hasi gara etxebizitza problematikaren inguruan antolatzen”. Behin hori esanda, argi utzi nahi izan dute horrekin ez diotela garrantzirik kentzen etxebizitzaren problematikari, baizik eta berau “marko integralago batean kokatu”. Baieztapena hala arrazoi-tu dute: “Krisi ekonomikoa eta higiezinaren burbuila tarteko, fase historiko honetan etxebizitzak duen garrantzi estrategikoa ikusten dugu. Hurrengo urteetan jokatu-ko den klase borrokan funtsezko espazioa izango da etxebizitza”.

Donostiako Maizterren Sindikatuko kideek azpimarratu dute beren eginkizuna ez dela mugatzen etxebizitza alorrean arazoak dituzten kasuak jasotzera, eta bilatzen dutena, besteak beste, ondokoa dela: arazoak dituen bizilagunari ikusaraztea denak batuz gero arazoak konpon daitezkeela. “Zentzu horretan ari gara lanean, ohartarazten etxebizitza-

rekin izan ditzakegun arazoak ez direla indibidualak, baizik eta kolektiboak”, diote. Horrek lotura zuzena egiten du gainontzeko taldeek beren jardunarekin bilatzen duten aspektu batekin: borroka-komunitatea osatzea. Hori lortzera bidean, “filosofia asistentzialista apurtzea” gakotzat dauka Batuk, eta horrek bereizten ditu “elikagai eta oinarriko beharrianak asetzen dituzten beste biltegi” batzuegandik. Asistentzialismoaren zokoratzean ikusten dute modua saretik jasotzen dutenen parte-hartzea bultzatzeko, elkar-laguntza pentsamoldea hedatzeko, eta finean, borroka-komunitatea hedatzeko. Hori lortzen dute, besteak beste, jendea janari bilketetan parte hartzera edo auzolanetara batzera animatuz. Beren hitzetan, “modu asko daude sareari laguntzeko, eta gure ustez hori da daukagun indar handienetakoa”.

IBILBIDE LABURRA, BAINA INTENSITATE HANDIKOA

Mintzakide guztiek konfinamendu garaian egin zuten jauzi praktikara, eta ondorioz epe tarte motzean oinarritzen da beren esperientzia. Testuinguruak, baina, ez die utzi patxadarako abagunerik. Atzera begira jarrita, hilabeteotan egindako ibilbidea “batzuetan gogorra” izan dela aitortu du Batuk, “beti delako zaila halako proiektu bat hastea, eta are gehiago bizi dugun egoeran”. Alabaina, ez dute denborarik galdu: aipatutako elikagai biltegiak gain itsulapiko solidarioak jarri dituzte herriko saltokietan, beharrianak duten familiak elikagai freskoak ere hornitu ahal



ALOKAIRU BENTA BERRI



BATU ELKARLAGUNTZA SAREA

izateko; eta beren formakuntzari eskaini diote denboraren zati handia. Dela errol-dak kudeatzen, alokairuen negoziaketetan, formakuntza juridikoan, diru-laguntzen gaineko ezagutza... aurretik inoiz bizi gabeko egoerei erantzuten saiatuz eskarmentua irabazi dutela diote. Alabaina, lorpenik preziatuena zein den zalan-tzarik ez dute: "Familia txiki bat sortzeko aukera izan dugu, eta giro horretan ari-tzeak errazagoa bilakatzen du dena".

AZETek balorazio positiboa egin du gaur arteko ibilbideaz. Hasierako hipotesia praktikarekin baieztatzen ari direla diote: "Langileok, bakarka, babesgabe gaude etxejabe handi baten aurrean, baina elkarrekin geldiezinak gara. Taldea langile-klasearen batasun eta artikulazio-rako tresna eraginkorra izan daitekeela uste dugu". Azaldu dutenez, gaur artean hurbildu diren hainbat pertsonaren arazoei irtenbideak aurkitzen aritu dira batik bat, eta etxejabeen abusuak publikoki salatzeke tartea ere bilatu dute. Irailean, eta maniobrarako egun pareta soilik izanda, auzokide baten etxe-kaleratzea oztopatzea eta harentzat alternatiba habitazionala negoziatzea ere lortu zuten. Baina ororen gainetik, Batukoek nola, gehien estimatzen duten lorpena komunitate politikoaren eraikuntza da.

Galdakaon eta Donostian, konfinamendua amaitu zenetik asteroko asanbladak egitera bideratu dute jarduna, bertaritzen ziren kideen arazoak bueltan lanke-ta egiteko. Alarma-egoerak, baina, jarri die oztoporik bide horretan. Galdakoztarrei lan-karga handitu zaie, zer eta neu-

rriek jarduna nabarmen oztopatzen dieten honetan: "Daukagun krisi ekonomiko larriak etxebizitzari loturiko arazoak dituen pertsona kopuru handia sortu du eta horrek gure jardunean eragina du, jende nahikotxok kontaktatzen baitu sarearekin larrialdi egoera dela eta". Donostiako Maizterren Sindikatuak, bestalde, asteroko bilerak bertan behera uztea erabaki zuen testuinguru berriaren aurrean, salbuespen bakarrarekin: etxebizitzarekin lotutako arazoren bat daukan norbaitek kontaktatzen duenean, aurrez aurrekoa hitzartzen dute berarekin. "Ulertzen dugu harrera beharrezkoa dela halako egoeretan", defendatu dute.

Asteroko bilerak bertan behera uzteagatik, baina, ez dute eten jarduna donostiarrek. Testuinguruak berekin dakartzan mugak onarturik, sindikatuak erabaki du salbuespen egoera baliatzea barnera begirako lanak aurreratzeko, dela antolakuntza edo komunikazio alorretan. Era berean, diote ez zutela nahi "salbuespen egoeragatik maizterren egoerak garrantzia galtzea. Lanean jarraitu nahi genuen, erakutsi arduratsuak izan gaitezkeela eta horrek ez duela esan nahi bakarrik telematikoki biltzea". Hala bada, neurri murriztaileak medio egonik ere, maizterren egoera bistaratzeko moduak aurkitu dituzte, Egia kaleko 22. eraikinean Sarebe-kin (Banku Berregituraketatik datozen Aktiboak Kudeatzeko Sozietatea) daukaten gatazka publiko egitea kasu -ez die nahi alokairu kontratua berritu bertako hamabi maizterri, horiek kaleratze arriskuan jarriaz-.

ERRONKA HAINA MOTIBAZIO

Martxan jarri direnetik erritmo bizian diharduten arren, nekea baino indar gehiago erakutsi dute hizlariak. Motibazioa antzematen zaie etorkizunera begira jarritakoan, nahiz eta ez diren gutxi bide horretan identifikatuak dituzten erronkak.

Beren aldarrikapenak alokairuen erregulazioa eskatuzetik harago joan behar direla diote donostiarrek. Bilbotarrek erronka nagusi gisa seinatu dute ganean dugun krisia, etxebizitzak zentraltasuna izango duelako bertan. Horrez gain, aztertu nahi dute AZETera arazo batekin hurbiltzen den jendea taldean geratzeko ote den: "Klase bereko auzokideekin komunitate politiko baten eraketa lortzen ari garela esan nahiko luke horrek". Galdakoztarrek beren dinamika herrian ezagutu eta erroto dadin nahi dute, taldera partaide berriak erakarri eta "borroka-komunitate sendoa" eratzeke asmoz. Era berean, beren gaitasunak garatzean dute arreta jarria, "heltzen den arazo kantitate handiari modu efizientearen erantzun ahal izateko". Hego Uribekoek aldiz, ardatz anitzeko beren proiektuaren baitan, etxebizitza alorrean kokatzen dute erronkarik gogorrena. Alabaina, erronka nagusitzat dituzte helburutzat dituzten puntu berberak: oinarritzko beharri-zanen asetzea eta borroka-komunitatea indartzean sakontzea. Denek ere, bidea hasi besterik egin ez duten arren, ibilbide oparoa egiteko behar dena badute: iparra argi. ●

“ ”

Familia beti José Miguel bila, hori etengabeko tortura da

Jon Alonso

NAPARRA. KASU IREKIA LIBURUAREN EGILEA

Naparra. Kasu irekia (Elkar) liburua idatzi du Jon Alonsok (Iruñea, 1958) José Miguel Etxeberria *Naparra*-ren desagarketaren auzia ikertuz. 1980an desagertu zen iruindarra eta familiak oraindik bila jarraitzen du. Liburuak ez du kasua argitzeko aztarna berririk eskaintzen, baina lau urteko ikerketa handia eginez, auziaz dagoen guztia bildu du, gatazkaren memoriari ale esanguratsua eskainiz. Kasua jarraitu nahi duenarentzat erreferente ezinbestekoa izango da aurrerantzean.

 XABIER LETONA BITERI  JOSEBA ZABALZA

Zerk bultzatu zintuen liburua idaztera?

Umetako lagunak ere izan zineten.

Gaztetako bere koadrila beste bat zen. Txikitan, eskolan kideak izandakoak gara. Beraz, ezagutu nuen eta gero desagertarazi zuten. Gainera, orain garai haiei buruz eta errelatoaz hainbeste hitz egiten denean, kasu hori, bizirik egon arren, pixka bat aparte gelditu da. Idazlea ere banaiz eta, uste nuenez norbaitek kontatu behar zuela *Naparra* auzia, ni aproposo izan nintekeela pentsatu nuen.

Lau urte pasa dituzu liburua idazten. Zer gorputzaldi utzi dizu?

Nola geratu zara?

Liburuaren funtsa, lanik handiena, lehenengo urte eta erdian egin nuen. Ondoren go bi urteetan Mont-de-Marsan-eko bilaketarekin zer gertatzen zen zain egon ginen, baina kasu irekia denez, gauza berriak gertatzen dira eta beti zaude liburua berritzen. Nola gelditu naizen... oso kontu latza da, herri honetan sekulako desmasiak gertatu dira eta ez da gai alaia. Bestetik, familia ere hor ikusten duzu, beti auziari aurre eginez, eta horrek ere miresmena sorrarazten du.

Zuk ere baikortasunez amaitu nahi izan duzu liburua eta bukaeran aipatzen dituzu auzian oraindik zabalik dauden sei lan ildo.

Bai, kasu irekia da eta, beraz, zaila izango bada ere, pentsa dezagun egunen batean jakingo dugula zer gertatu zen eta aurkituko ditugula gorpuzkinak.

Ildo horietatik ikusten duzu bateren bat sendoagoa?

Uste dut lehenbailehen egin beharko litzatekeela Frantziako Brocas herri inguruetako indusketa hori. Bizeneko tokia

miatu zen 2017an eta, harrez geroztik, A izenekoaren miaketa lanak egiteko zain da familia. Bi urte pasatu dira eskaera judiziala egin zenetik, baina oraindik ez da egin eta behar-beharrezkoa da lehenbailehen egitea, ikusteko ea han dagoen eta kapitulu hori ixteko. Gainera, familiarrentzat sufrikarioa izaten ari da hainbeste denbora zain egotea, birbiktimizazioa agerikoa da.

CESIDeko [Espainiako zerbitzu sekretu ohiak] Arnau de la Nuez konfidenteak eman zuen toki horien berri, orain desagertu da, baina batek daki berriz ager daitekeen. Ziburun ere agertu zen hilotz bat trenbide ondoan eta DNA probak egin behar zizkioten. Eta berdin Caute-rets-en agertu zen hilotz batekin. Noizbait Espainiako sekretu ofizialen legea aldatuko balitz, hortik ere ager daiteke informazio berria...

Bai Enekok [Naparra-ren anaia] eta bai zuk ezinbesteko ikusten duzue sekretu ofizialen legea aldatzea kasua argitu ahal izateko.

Behar dira baldintza batzuk, non estatua prest legokeen onartzeko estatu terrorismoa egon dela. Gaur egun oso urruti gaude horretatik. Gerra Zibileko gorpuzkinak ere 70 urte geroago agertzen ari dira.

Liburuan diozunez, horrelako kasuak idatzita geratzen dira estatuen estoldetan.

Hori da niri elkarrizketetan adituek esandakoa. Paco Etxeberriak [auzi medikua], adibidez, hori dio, halakoetan beti geratzen dela arrasto idatzi bat. Baina, jakina, horretarako ezinbestean aldatu behar da sekretu ofizialen legea, eta aldatuta ere...

EAJren eskariz, 2016an Kongresuak eman zuen aldatzeko baimena, baina harrez geroztik PSOEk eta PPK beti blokeatu izan dute aldaketa.

Lege proiektuak egiten direnean zuzenketak aurkezteko aukera izaten da, eta alderdi hauek etengabe jartzen dizkiote zuzenketak lege aurreproiektuari, horrela lege berria egitea atzeratuz.

Orain PSOEk, Unidas Podemosek eta, nolabait esateko, "periferiak" eusten diote Espainiako Gobernuari. Gobernu mota hori luzatzeak ekar dezake legea aldatzeko aukerarik?



Bai, izan liteke, baina gobernu horrek aurrera jarraituta ere, besteak beste pandemia ganean dugunean, edo pensioen gaia, erretiroak... ez zait iruditzen auzi hori argitzea izango dela bere lehentasunen artean.

Goazen auziaren muinera: nork baitu eta desagerrarazi zuen José

Miguel Etxeberria? Hiru tesi dira: bat, autonomoak izan ziren, baina hau laster baztertu zen; bi, ETA izan zen, indar handia izan zuen tesiak, eta oraindik batzuek hala uste dute; hiru, BVE talde parapoliziala izan zen, egun hipotesi onartuena da. Zuk azken honen alde egin duzu. Benetan jakin arte zer gertatu zen beti

egongo da espekulaziorako tartea, eta errespetua diet bestelako iritziei, baina nire ustez argi dago BVE izan zela. Hori esateko zeharkako frogak ugari dagoela uste dut.

Hasteko, erreibindikazioa; gero, hainbat kazetarik aspaldi egindako eta argitaratutako ikerketak; justiziak familiaren aurrean historikoki hartu duen jarrera (desagerketa kasu baten aurrean gaudela ukatzera iritsiz, duela gutxi arte, eta familiaren ekinbide asko oztopatuz), bere hartan, zeharkako frogak bat iruditzen zait; familiak hainbat militantengandik jasotako lekukotasuna; NBEko Borondatex Kontrako eta Bortxazko Desagerketen Lantaldearen iritzia; auzian garrantzia duen *Escaleras* konfidentea [Julio Cabezas Centeno, hila da] ere hor da...

Zeharkako frogak asko ditugu BVE izan zela pentsatzeko. Niri errespetagarriak iruditzen zaizkit besteen iritzia, ez dut inor konbentzitu nahi, baina ETA izan zela diotenek iritzia eta susmoak bakarrik dituzte, besterik ez.

Liburuko lehenengo atalaren amaieran galdetzen duzu zuk zeuk: Zergatik Naparra? Escaleras-ekin topo egitearen zorte txarra izan zuen, hain inportantea zen bera Komando Autonomoetan? Kasualitatea?

Seguruena hainbat egoeraren batuketak izan zen. Duela gutxi, orduko autonomo batek berriz esan zidan Naparra ezer gutxi zela jomuga militar gisa, Iparraldean bera baino askoz jende esanguratsua zegoela. Baina BVEk eskura izango zuen, *Escaleras*-ekin izandako enkontrua ere hor ziren... Lasak eta Zabalak ere militar ki ba al zuten garrantzirik bada? Edonor hiltzarekin ere beldurra eta nahasmena sortzen ziren errefuxiatuen artean.

Horrez gain, hainbat autonomoekin hitz egin ondoren, ematen du Naparra bihurtu zela haien arteko erreferente bat, komando autonomoak antolatu nahi zituela, nolabaiteko gaitasun teorikoa ere bazuela. Gogoratu beste ezizen bat ere bazuela: *Bakunin*. Beraz, zergatik bera? Zirkunstantzia askoren batuketa eta zorte txarra.

Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Legebiltzarreko indarkeria parapolizialen kasuetan sartuta dago orain Naparra, baina 25 urte pasatu behar izan ziren instituzioetatik inor familiarekin harremanetan jartzeko. Samur esaten da, eta ez ditu leku onean

uzten gure instituzioak. Nola uler liteke hori?

Orokorrean badirudi biktimen gaia oso gelditi egon zela batzuk biktimen eskubideak eta aldarrikatzen hasi ziren arte. Jakina, hasieran ETak eragindako biktimei zuzendu zaizkie aitorpena eta laguntzak. Naparraren familiari Espainiako Estatuak bitan ukatu dio biktima izatearen aitortza. Baldintza politikoak aldatuz joan dira, eta gizartearen zati batek eta alderdi politiko batzuek izan dute beste biktima batzuekiko aitortza minimo bat.

Eta hala ere pentsa, 25 urte pasatu behar izan ziren, eta ondoren, alderdi batzuek errekursoak jarri dizkiete aitortza hori bideratzeko legebiltzarretan egin diren legeei.

“ ”

***Bi urte eta piko
pasa dira sendiak
Mont-de-Marsaneko
bigarren bilaketarako
eskaera egin zuenetik
eta oraindik ez
du erantzunik
Frantziaren aldetik.
Hori kriminala da***

Oker ez banago, gainera, 2007an Eusko Jaurlaritzako biktimen arretarako agintariak jarri ziren harremanetan familiarekin, estatuaren edo indar poliziaren biktima gisa zerrenda batean sartzeko. Baina oraindik ez zen aitortza ofizialik egin. Hori egin zuen lehen erakundea NBE izan zen, Borondatex Kontrako eta Bortxazko Desagerketen Lantaldearen aldetik egin. 2018an, gainera, jakin zen Naparrak ez zuela auzibiderik Espainiako Auzitegi Nazionalan.

Bai, hala da. Alde horretatik, uste dut merezi duela hausnartzea gizartearen denborarekin egon den hondatze demokratikoaz. Orain dela 35 urte, demokratik guztiek uste zuten pertsona guztiek zeuzkatela eskubideak, nahiz eta izan erakunde armatuko kide. Gaur egun ematen du erakunde armatu bateko kide

batekin nahi dena egin daitekeela, eta defendatzen baduzu ezetz, ia-ia terrorismoaren apologia egiten ari zarela. Horregatik, oso adierazgarria da ikustea nola gaur egun ere, NBEko desagerketen lantaldearen kideek behin eta berriz gogorarazten duten ez dagoela inor desagerarazteko eskubiderik, pertsona horrek edozer egin duela ere.

Eta aipatzen ari garen guztiaz gain, gainera, familiak jasan zuen ezker abertzaleko sektore batzuen sektarismoa ere. Horrek ere min handia eragin zion familiari. Hori ere ikuspegi kritikoz landu duzu liburuan.

Familiak beti izan du ezker abertzaleko hainbat sektoretako jendearen laguntza. Zer gertatu zen? Batetik, Komando Autonomoetako batzuek ETA izan zela salatu zuten; bestetik, ETak esan zuen “hau ez zen gutarra, beraz, hau ez doa gurekin”. Familiak José Miguel ager zedin nahi zuen, ez besterik, eta beraz, ETA-Komando Autonomoen arteko lehia hartatik kanpo egotea deserosoa izan zen haientzat. Muturka ari ziren bi poloentzat deserosoa zen familia, eta baztertu egin zuten.

Naparra biktima da, baina baita bere familia ere, desagerrarazitakoen protokolo instituzionalek argi diote hori. Zuk ere bai, liburuan sarri aipatzen duzu familiaren sufrimendua eta harekiko miresmena.

Nazioarteko zuzenbidea argia da horretan eta NBEk horri eusten dio. Estatuak izenpetzen dituzte erakunde hauen itunak, baina gero ez diete inongo kasurik egiten. Aipatu dugun NBEren desagerketen lantaldeak 40 urte egin zituen 2020an eta Naparraren familia gonbidatu zuen Genevara, ospakizun bilkurara. Frantziako eta Espainiako ordezkariak ez zen agertu. Haiek ez balute ezer ezkutatze, joango liriteke eta familiari dagokion aitortza egin eta erreparazioa emango liokete.

Aita, ama, anaia... beti José Miguel bila. Hori etengabeko tortura da. Kasua jarraitu eta ezagutzen duenak ere une batean deskonektatu dezake auziaz, baina familiak ez. Orain, adibidez, bi urte eta piko pasa dira sendiak Mont-de-Marsan inguruko bigarren bilaketa egiteko eskaera egin zuenetik eta oraindik ez du erantzunik Frantziaren aldetik. Hori kriminala da.



Liburuan Naparraren gertuko bi pertsona aipatzen dituzu: bata, desagertu zenean berarekin bizi zen autonomo bat, eta bestea, hitzordua egin zuen ETako militantea. Saiatu zara haiekin hitz egiten, baina ez duzu lortu. Badakizu norbaitek lortu al duen?

Ez dakit hitzordua zuenak noizbait zer-bait esan duen. Bestetik, Naparra hainbat tokitan eta hainbat pisukiderekin bizi izan zen... Afera da batzuek ez dutela kasuaz hitz egin nahi izan, nirekin behintzat. Nik ere ez dut inor presionatu.

Errelatoei buruzko hausnarketa ere egiten duzu liburuaren amaieran. Zer geratzen ari da Naparra auziaz euskal gizartean?

Ez da aktualitateko gaia, baina oraindik kasu irekia da. Familiatik hasita, bada jende bat lanean ari garena, gure egia edo gure ustea kaleratzeko. Foro Sozialak errelato inklusiboaz hitz egiten du, hau da, errelato guztiak aintzat hartzen

dituen ikuspegiaz, baina gaur egun ez da horrelakorik. Oraindik ere, esparru politikoaren zati bati kasu hau aurkeztu eta ez dute onartuko estatuak zerikusirik duenik, edo ukatuko dute desagertu denik, auskalo; beraz ez dute onartuko familia biktima denik, erreparazioa behar duenik... Ni teoriarik ados nago errelato inklusiboarekin, baina orduan, kasu honetan, non dago errelato inklusibo hori?

“Pena ematen dit liburu honek ni baino idazle hobea ez izatea”. Zergatik diozu hori?

Idazle hobe batek agian hobeki adieraziko zuelako familiak bizi duena. Ez da erraza sentimendu horri hitzak jartzen saiatzea. Hainbat modutan saiatu naiz adierazten hori zer izan behar den, eta hainbeste saioetatik geldituko da zer-bait, baina seguruenik idazle hobe batek hobeki egingo zuen.

Ohikoan literaturan aritzen zara, saiakeran batzuetan, orain ikerketa

kazetaritzan. Non aritzen zara erosoago?

Horrelako kasu bati buruz idazteak askoz konpromiso handiagoa dauka fikzioak baino. Fikzioan beti daukazu esatea...

“ ”

Errespetagarriak iruditzen zaizkit besteen iritziak, baina ETA izan zela diotenek iritziak eta susmoak bakarrik dituzte, besterik ez

“baina hau ipuin bat da, nobela bat, imajinazioa”. Hemen bizirik ari den jendeaz ari gara, kasuarekin harreman bat izan duen jendeaz, eta hori konprometituagoa da. ●

ESKOLA PUBLIKOA vs. IKASTOLAK?

Artikulu hau Julen Mendozak bere blogean argitaratutakoa da. Eskola publikoaren eta ikastolen arteko eztabaidan, iraganera begira beharrean etorkizuneko erronkei erantzunez aritzea planteatzen du. Hiru erronka hauek dira bere ustez lehentasunezkoak: aukera berdintasuna, euskara eta sormenetik hezteak.

 JULEN MENDOZA

Azkenaldian bolo-bolo dabil hezkuntzaren inguruko debata, eta ez dut atsegin debate hori zein terminotan gertatzen ari den. Gotortuta, bakoitza bereari eutsita, eta mingarriak izan daitezkeen termino eta edukiak erabiliz gertatzen ari da debata. Batzuek diote Ikastolak ikastetxe elitistak direla, eta mingarria bihurtzen da hori Ikastola proiektuetan sinisten duten horientzat, Ikastolak herri mugimendu izan daitezkeen lan egiten duten horientzat. Eta beste batzuk, euskal eskola publikoa frantsesa edo espainola dela esatera iristen dira, edo frankismo garaietan ere eskola publikoak bazirela aipatzen dute, eta hau ere mingarria bihurtzen da egunero, eta askotan gune ez euskaldunetan, euskara eta euskal kultura espazio berrietara iristeko lan egiten duten pertsona horientzat. Eta zail egiten zait imajinatzea bide horretatik nora irits gaitezkeen. Ez dut ulertzen. Uste baitut eskola publikoan gaudenok Ikastolak eta Ikastolako komunitatea behar dugula euskal eskola publikoa hobetzeko; eta uste dut Ikastolek eskola publikoak behar dituztela benetako proiektu berri bat burutzeko, egungo gizarteari eta haren erronkei erantzungo diena.

Duela egun gutxi Gemma Zabaleta eta Aitor Etxarteren elkarrizketa bat ikusi

nuen, Eusko Ikaskuntzak bultzatutakoa, etorkizuneko hezkuntzaren ingurukoa. Aitor Etxarteren heriotzarekin piztu zitzaidan hari buruz gehiago jakitearen nahia, eta horregatik, beste gauzen artean, elkarrizketa hau topatu nuen. Uneren batean Gemmak eta Aitorrek, etorkizuneko hezkuntza irudikatzerako orduan, iraganari begiratzearen arriskuaz ohartarazten zuten, nostalgiatik begiratzearen arriskuaz. Eta baita ere, aurreraegi jotzearen arriskuaz, errealtatearekin harremana gal zitekeela iritzita. Beraz, bien arteko orekan kokatzen zuten aurrera begirako ikuspuntua.

Elkarrizketa hau ekartzen dut hona sentsazioa dudalako egungo hezkuntzaren debata iraganari begira gertatzen ari dela, etorkizunari begira baino. Nahiago nuke gure hezkuntza ereduaren inguruko eztabaida gizarte erronken inguruan kokatzea, eta horren baitara egokitzea, eta ez hainbeste debate ideologiko nire ustez hutsaletara –eta honekin ez dut esan nahi debate ideologikoak hutsalak direnik, baizik eta gertatzen ari diren horiek direla hutsalak–. Izan ere, debate ideologiko horiek arriskua izan baitezakete askotan errealtatetik urruntzeko, eta nire errealtatera behintzat ekarri nahiko nuke iritzi artikulu hau.

Eta errealtateetara etorrira, eta etorkizunari begira jarrita, erronkak ugariak

izan daitezke. Eta erronka horiek ez dira berdinak izango lurralde administratibo eta errealtate ezberdinen arabera. Eta horren baitan ere pentsatu beharko dugu dagokion hezkuntza sistema ereduak ez duela zertan homogeneoa izan beharrik, poliedrikoa ere izan daitekeela. Erronka eta testuinguruaren arabera beharko duela hezkuntza ereduak.

Bada niretzako erronka bat bereziki garrazitsua dena hezkuntzaren alorrean, eta hori aukera berdintasunarena da. Gizarte kohesionatua eraiki nahi duenak ezinbestean galdetu beharko dio bere buruari zein punturaino erantzuten dion bere hezkuntza sistemak helburu horri. Izan ere, ikasle askorentzat hezkuntza bere bizitzaren aldaketarako pasaporte bihurtzen da. Badira klase sozial oso jakin bati lotzen zaizkion ikasleak, zail izango dutenak bere egoera aldatzea ez bada bere ikastetxe eta hezkuntza komunitateak eskaintzen dien bidetik. Eta ez naiz soilik baliabideez ari, unibertsaltasunaz edo/eta bekez. Hori ere bai, baina ez bakarrik. Ekosistemaz ari naiz, ikasle horrek aurkituko duen komunitateaz, jasoko duen komunitateaz, elkarrekin erai-kiko duen komunitateaz.

Eta.... erantzuten al dio gure hezkuntza ereduak lehen helburu horri? Nik eza-gutzen dudan errealtatean behintzat ez. Errealtatea segregazioarena da, eta se-



MATANE GARTZANDIA

gregazioa diodanean ez naiz arraza edo kultura segregazioaz ari, baizik eta klase sozialen segregazioaz. Horrela bizitzen dut nik egunerokoan nire semeen eskolako bizitza. Eta horrek egunerokotasunean ondorioak ditu. Batetik, ghettoak sortzen direlako, klase sozialen ghettoak, horrek dakarren guztiarekin; eta bestetik, ikastetxeetako klase horiek, haien problematika guztiekin, egoera erabat ezberdina duten beste klase batzuen ratio berak dituztelako. Eta beraz, ez da aukera berdintasuna egongo, sistema berak ez duelako aukera hori bermatzen. Eta hori horrela bada, zer gizarte kohesionatu irudikatu dezakegu etorkizunean?

Baina jo dezagun orain nik bigarren zatitartean dudaren erronkara, euskararena, eta euskararen erabilera eta ezagutza bermatzearena. Honetan ere, esango nuke hezkuntza ikasle jakin batzuek euskalduntzeko duten pasaporte ia bakarra dela. Eta hori nola lor liteke ghetiztatuta dauden ikastetxeetan? Izan ere, horrelako guneetan euskalduntzea lortzen den ikasle bakoitza garaipen bat da guraso askorentzat. Hor ditugu gure seme-alaben lagunak, elkarrekin jolasten direnak, eta euskaraz hitz egiten entzuten ditugunak. Eta euskalduntze kasu horiek ezin ditugu termino kuantitatiboetan neurtu, horretarako baldintzak ematen ez direlako, baina bai termino kualitatiboetan, gutxienez haur horiek beste etorkizun baterako aukera gehiago izango dituztelako. Hori ere bada gizarte kohesioa.

Zalantzarik gabe hori oso lotuta dago euskaldun komunitatearen zabalitzearekin. Eta horretan Ikastolei asko eskertu behar diegu, nire belaunaldian –orain guraso garen horietan– haiei esker zabaldu zelako gure herrian euskal hiztun komunitatea, eta orain gure euskalduntasun horretatik lortzen dugulako besteen euskalduntasuna. Noski, Euskal Herriko herri guztietan egoera ez da berdina. Errealitate soziolinguistikoak eta bereziki administratiboak zehazki handia dute horretan, eta horren baitara erabaki beharko da hezkuntza eredua. Baina esango nuke, nirea bezalako herrietan –eta ez da bereziki herri euskalduna–, euskal hiztun komunitatea babestea baino komunitate hori zabaltea tokatzen zaigula, beste errealitate batzuetara zabaltea, beste moduetara euskaldunduko ez liratekeen horiek euskalduntzera. Azken batean, komunitatea sortzera, elkarrekin euskal komunitate berri bat sortzera. Eta geure buruari galdetuko bagenio ea oraingo hezkuntza

ereduak horri erantzuten dion, nik ezetz esango nuke.

Eta nire iritziz hezkuntzak duen hirugarren eta azken erronkara jo beharko bagenu –izugarritzko garrantzia duen erronka–, gizarte aldakor honi begiratu beharko genioke, abiadura handiz aldatzen ari den gizarte honi. Eta aldakorra den gizarte honetarako hezkuntza honek erantzunak baino galdera berriak behar ditu, momentu eta testuingurura etengabe egokituko diren galderak. Izan ere, oso adierazgarria da ikasleak ematen dituzten erantzunen arabera ebaluatzen direla, eta ez egiten dituzten galderen arabera, bereziki iraungitze data hain laburra duten galderez josiak gaudela ikusita. Gaurko erantzunek ez dute biharko balio, bihar galdera berriak egin beharko dizkiogulako geure burua-

Arazoa ez da publiko
izaera hori zein
modutara lortzen
den edo definitzen
den. Arazoa da behar
dugun ereduak bakarra
izan behar duela,
gainerakoan ez duelako
erronkei erantzuteko
gaitasunik izango

ri. Eta hori horrela izanik kreatibitateetik hezi beharko dugu gure gizartea –ez soilik ikasleak, baita langileak ere–, eta ez orain arteko ezagutza arrazionaletik, pertsona kreatiboak beharko ditugulako garai berrietarako. Egoera honetan gure herriak ez badio ilusioz hezkuntza eredu amankomun bati erantzuten, ez da egungo eta etorkizuneko erronka berriei erantzuteko gai izango. Estrategia amankomuna behar dugu, eraldatzailea, herri eta gizarte hobe bat egiteko errotik aldakorra izango den estrategia. Eta hor ere, geure buruari galdetuko bagenio hezkuntza eredu honek behar honi aukera berdintasunez erantzuten ote dion, niretzat erantzuna ezezkoa litzateke.

Hor beraz, niretzako garrantzitsuak diren hiru erronka, hiru galdera eta hiru erantzun. Eta ez dut inongo zalantzarik

gertatzen ari den debate emozional eta sakon honetan parte hartzen ari diren edo garen pertsonak hiru erronka hauei erantzun nahi diegula, izan Ikastola komunitateko partaide edo izan eskola publiko komunitateko partaide. Eta hori horrela bada, zergatik ez gara adostasun berrietara heltzeko gai? Seguraski gure iraganarengatik. Iraganeko galderen erantzunetan kokatu dugu debatea. Baina esaten genuen bezala, egungo errealitateak galdera berriak behar ditu, eta ez ditugu oraindik galdera berri horiek burutu. Herri honek, 60ko hamarkadan, galdera berriak eraikitze gaitasuna erakutsi zuen, eta galdera horiei erantzunez egundoko aurrerapena bizi izan dugu mende erdiz. Orain galdera berriak behar ditugu, baldintzarik gabekoak, etorkizunari begiratzen diotenak, eta horiek elkarrekin egin behar ditugu.

Eta horretan hasita *Hik Hasik*, Joxe Mari Auzmendiaren bidetik, Euskal Hezkuntza Sistema Publikorako egin zuen proposamena ekarri nahiko nuke gogorra, hiru oinarri zituen: a) Hezkuntza-eskumena duen administrazioak diru publiko finantzatzea, eta finantzaketa horren guztiaren jarraipena egitea; b) Eskola bakoitza autonomia izatea bere hezkuntza-egitasmoa garatzeko, bai ildo edo estilo pedagogikoari dagokionez, bai ikastetxearen barne-antolaketa dagokionez; eta c) Udalak herri-mailako hezkuntza antolatze eskumena izatea. Uste dut hasiera ona izan litekeela debatea termino egokietan kokatzeko. Uste dut udalek eskumen handiagoak behar dituztela hezkuntza alorrean, ez soilik ikastetxeen mantentze lanetan. Uste dut gainera honi ikastetxeen autonomia gehituko bagenio, bere errealitatera egokituko litzatekeen hezkuntza eredu izango genukeela, komunitatera egokituko litzatekeen hezkuntza eredu. Eta uste dut doakoa eta unibertsala behar duela izan, publikoa. Eta niretzat arazoa ez da publiko izaera hori zein modutara lortzen den edo definitzen den –ados egonda debate kontzeptualarekin–. Arazoa niretzat da behar dugun ereduak bakarra izan behar duela, gainerakoan ez duelako aipatu ditugun erronkei erantzuteko gaitasunik izango. Ezin ditugu bi eredu edo hiru izan, bakarra behar dugu, nahiz eta poliedrikoa izan. Eta ezin dugu hori ustezko errepublika baten momentu atzeratu, gauza asko dagoeneko gure esku daudelako. Galdera berriak behar ditugu, hurrengo mende erdi bati erantzuneko dioten galdera berriak. ●

NASA YUWE, KOLONBIAKO NASA HERRIAREN HIZKUNTZA

Hizkuntza ikasteko lehen liburua eskura dute herritarrek

Arkaitz Zarraga UEUko Glotodidaktika sailburuak eta Ane Ortega Begoñako Andra Mari Irakasle Eskolako irakasleak ondo ezagutzen dute Kolonbiako Nasa herriaren hizkuntzaren berreskuratze prozesua, beraiek ere parte hartzen ari baitira bide horretan. Hizkuntza zertan den eta hizkuntza kooperazioari dagokion esperientziaz jardun zuten biek Hitz Adina Mintzo zikloan, abenduaren 14an, Gasteizen eskainitako hitzaldian.

✂ MIEL A. ELUSTONDO 📷 ARKAITZ ZARRAGA

Kolonbian, jatorrizko 65 hizkuntza dira bizirik. Nasa yuwe da horietarik bat. Herrialdearen hego-mendebaldeko Cauca departamenduan bizi dira, Andeetan. 400.000 ei dira, eta horietarik 140.000 dira nasa yuwe erabiltzaile, hots, %35. Zarraga eta Ortega irakasleek Tuunsiwxu-Toribio herrian gauzatu dute beren esperientzia, 32.000 lagunek herrian, non %30 nasa yuwe hitzun baita. Zarragak eta Ortegak diotenez, iragan mendearen amaieran atzerapen gorrian zen nasa yuwe: “Eskolak ez zuen ezagutza bermatzen, nasa yuwe ez zegoen bizitzaren arlo eta funtzio gehienetan. Hizkuntzaren prestigioa txikia zen, hiztunek ez zuten beren hizkuntzan hitz egiteko harrotasunik, transmisioa eteten hasita edo oso aurreratuta zegoen, herrietan ez zen entzuten, hizkuntza paisaia ez zen ageri –espainolez zegoen dena–, eta espainola zen nagusi indigenen gune eta ekitaldietan ere”. Eta, nonbait ere, hizkuntza berreskuratzeko nahia, duin bizitzeko gogotik sortu zen.

Caucako Lurralde Kontseilu Indigenak –Nasa herriarekin batera beste zenbait herri ere biltzen dituen– helburutzat hartu zuen lurrak berreskuratzea, indigenen bizi baldintzak duintzea. Horietarik barna heldu zen Iparreko Kabildo Indigenen Elkarteak “Nasa Yuweren haria” sortzera, hau da, hezkuntza lantzerantz, eta hortik, hizkuntzari eta kulturari dagozkion

helburuak gogoan hartzera, Haur eta Lehen Hezkuntzan nasa yuwez murgiltze eredua ezartzera, nasen mundu ikuskeran errotuta. “Eskola horiek ugaltzen ari dira, eta bestelako eskola ereduetan ere nasa yuwe hizkuntzak gero eta presen-

tzia handiagoa izan dezan urratsak egiten ari dira”, Zarraga eta Ortegaren hitzetan. Horrek azalera ekarri ditu hutsune eta beharrianak: ikas-materialak, irakasleen prestakuntza, kultur ekoizpenak... Eta hortixe etorri da, zuzen, euskaldunen eta nasen arteko kolaborazioa, Garabide erakundearen bitartez bideratua.

BIZIBERRITZEA HELBURU

Hizkuntzaren biziberritze prozesuari bultzada sendoa ematea izan da bi herrien artean gauzatu den kooperazioaren ardatza. Erabakia, dena den, nasena izan zen. “Nasa Yuweren haria”-ren baitan, 2011. urtean 40 sustatzaile izendatu zituzten, hizkuntza eragile, alegia. Horietako batek Garabidek antolatu ohi duen Aditu ikastaroan parte hartu zuen eta harrezkero sortu zen elkarlana eta horrelaxe heldu ziren Nasa herriaren autoritate politiko eta espiritualak hizkuntza biziberritzeko plangintzaz hausnartzera eta zenbait urrats, tresna eta baliabide bideratzera.

Hasteko, zenbait lan-ildo identifikatu zituzten: plangintza, murgiltze eskolak, helduen irakaskuntza, kultur ekoizpena, hedabideak, corpora, eta itzulpengintza. Berariazko taldeak osaturik landu zituzten ildook nasa sustatzaileek eta Euskal Herriko kideek. 2018an, beren ezagutza gainerako nasekin partekatze-ko asmoz, 180 orduko ikastaroa antolatu zuten Tuunsiwxu-Toribion: *Hizkuntza*



biziberritzeko estrategiak diplomatura, nasa komunitatean aplikatua. Arrakasta unibertsitateraino heldu zen, eta 2019an, Unibertsitate Autonomo Indigena Kulturartekoak ikastaroa eratu zuen, hizkuntza biziberritzeko prozesuak kudeatzeko prestakuntza eskainiz: ikasleek 23 irakasle nasa eta hamar euskaldun izan zituzten gidari. “Azken ikastaro horretan izugarri hazi zen nasa yuweren presentzia, hizkuntza paisaia nasa yuwez dago ia erabat, eta ia irakasle nasa guztiek beren hizkuntzan eman zuten ikastaroa”.

Bi irakasleok Caucan egiten duten lanak, dena den, helduen irakaskuntza eta alfabetatzea izan du xede nagusi, hizkuntzaren transmisioa bermatzeko ezinbestekotzat iritzirik, neska-mutikoen eskolekin batera, “hizkuntza erabiltzeko gai ez diren helduek ere gaitasun hori eskuratzea. Gainera, herritarrek bizi-bizi dute nasa yuwe ikasteko irrika”. Zenbait esperientzia gauzatuak zituzten, baina emaitza iaorik gabekoak, inondik ere. Horretan, “helduen eskolen izaeraz eta helburuez hausnartzea izan zen gure lehen egitekoa”.

HELDUEN IRAKASKUNTZA

Helduen eskolak abiarazirik ere, ordea, nasek ez zuten nahi, bakarrik, hizkuntza irakasteko tokiak izan zitezen, ezpada nasa yuweren erabilera handitzeko eragileak izatea, oroz gain, haur eta gaztetxoan artean. Zarraga eta Ortegaren iritziz, bestalde, helduen eskolak oso aktiboak izan daitezke hizkuntzak arlo berrietan ere urratsak egin ditzan, dela corpusaren plangintzan, dela administrazioan, kiroltan, hedabideetan, merkataritzan eta beste. Gainera, “arlotan guztietan espainola izan da nagusi”, esan digute.

Helduen eskolak komunitatearen agente eta eragile gerta daitezen, hala ere, baitezpadakoa zitzaien egoeraren diagnostikoa zuzen egiten asmatzea eta horretarako hainbat faktore aztertzea. Zarragak eta Ortegak horietako lau aldagai izan zituzten langai: “Curriculum batoriturik ez zegoenez, curriculum egokia irudikatu eta garatzea helburutzat hartu genuen. Curriculumari buruzko hausnarketarekin batera, irakasleen prestakuntza eta material didaktikoak prestatzeko prozesua bateratu beharra ikusi genuen. Horretarako, funtsezkoa zen ikuspegi metodologiko egoki bat aukeratzea”. Komunikaziora bideratutako metodologia-ren alde egin zuten. “Ikuspegi komunikatiboak proposatzen du ikasleak hizkuntza erabiltzera bultzatuz ikasiko dutela hiz-



Nasa yuwe hiztunak trukearen merkatuan. Hizkuntzarekin lotutako hainbat material aurki daiteke merkatu horretan eta hizkuntzak indar handia hartzen du gune horretan. Ezkerreko orrialdean nasa yuwe ikasteko darabilten materialetako bat.

kuntza erabiltzen. Era berean, ikasketa-plana diseinatu behar da, eta irakasleak horretan trebatu, delako ikasketa-plana behar bezala garatzeko”.

2018-2019 ikasturtean burutuak ziztuzten unitate didaktiko guztiak. Urtea geroago, ikasleen eskuetan dago nasa yuwe ikasteko ikaslearen liburua: *Kwe'sw yuwe's piywa' Nyafx Fxidx*. Liburuarekin batera irakaslearen liburua eta ikus-entzunezko materialak ere osatu eta argitaratu dituzte.

AURRERAPEN HANDIAK

Zortzi bat urtez jardun dute Zarragak eta Ortegak Tuunxiwxu-Toribion. Urteotan, nasa yuweren irakaskuntza hobetu da, eta, hori ez ezik, hizkuntzarekiko harrotasuna eta hizkuntzaren ikusgarritasuna hazi dira. “Gaur egun, herriko edozein jai edo batzarretan nasa yuwez entzuten da. Hizkuntza paisaia ere izugarri emendatu da. Whatsapp bidez ere gero eta gehiago komunikatzen dira nasa yuwez,

eta Facebooken ere ikaragarri handitu da presentzia. Ekitaldi garrantzitsu eta ospakizun askotan –trukearen merkatuan, besteak beste–, etengabe aritzen dira megafoniatik nasa yuwez, eta postuetako txarteletan ere hizkuntza horixe da nagusi. Eskola bakoitzak harrotasunez erakusten du nasa yuwez egindako lana...”. Prozesu luze baten emaitzak dira, inondik ere, eta bertatik bertara bizi izan dituzte Zarragak eta Ortegak: “Udako egonaldiez gain, hainbat mezu, taula, material eta bideo-bilera partekatu ditugu. Distantziaren eraginez, nasek aitzindaritzat hartu behar izan dute, eta esperientzia eta trebetasunak metatu dituzte. Era berean, oso pozgarria izan da ikustea belaunaldi berriak egitasmo honetara batuz joan direla urte haue-tan”. Eta, hala ere, lana ez da burutua: biziberritzen segitu behar, hizkuntza eskolan normalizatzen, esparru berrietan sartzen, hedabideetako leihoa zabaltzen, helduen eskola gehiago irekitzen... ●



Lumumbaren azken arrastoa



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Elisabethville (Katanga, egungo Kongoko Errepublika Demokratikoa), 1961eko urtarrilaren 17a. Patrice Lumumba buruzagi anticolonialista eta Kongoko Errepublika Demokratiko independentearen lehen gobernuburu demokratikoa hil zuten. Gerora jakin zen exekuzioan, Katangako ordezkarienez gain, Belgikako inteligentziako eta CIAko kideak ere bazirela.

Lumumba Kongoko lehen ministro izan zen 1960ko ekaina eta iraila bitartean, herrialdeak Belgikarekiko independentzia lortu zuenetik, estatu kolpe baten bidez Mobutuk boteretik bota zuen arte. Lumumbak ihes egin zuen eta bere aldeko indarrak biltzen ahalegindu zen, baina abenduaren 1ean atxilotu zuten. Heriotza sententzia aurrez ezarria zioten. NBEk lehen ministro hautatuari babesa ukatu ondoren, abuztuaren 26an, CIAko zuzendari Allen Dullesek telegrama hau bidali zien Kongon zeuzkaten agenteei: “Gure helburu garrantzitsuena bera eliminatzea dela erabaki dugu eta, egungo egoeran, gure isilpeko ekintzan lehentasun handia duela”. Eta “eliminatzea” Lumumba hiltzeaz gain, haren arrastorik ez uztea ere esan nahi zuen. Hil eta biharamunean, Lumumbaren gorpua azidotan desegin zuten, 2000. urtean Gerard Soete belgikar polizia ohiak aitortu zuenez. Soetek Lumumbaren arrastoak desagerrarazteko agindua jaso zuen eta gorpua zatitu eta



AFRICAVE.ORG

azidotan sartu zuela esan zuen 40 urte geroago. Bi hortz gorde zituela ere esan zuen, eta alemaniar telebista-saio batean erakutsi zituen. Soete hurrengo urtean hil zen eta gaia isilean geratu zen, haren alabak 2016an medioetan ateratzeko aukerari heldu zion arte. Orduan, belgikar justiziak Soeteren etxea miatzeko agindua eman zuen; hortz bat aurkitu eta errekisatu zuten.

2020ko urtarrilean, Lumumbaren seme-alabek Belgikako Filipe I.a erregeari eskutitza idatzi zioten, hortz hura, aitaren azken arrastoa, familiari itzultzeko esa-

nez: “Gure aita bizidunen mundutik desagertu zen, gure artean, gure barruan bizitzeko, baina beti modu hotzean (...) Gure familiak bere pausoei jarraituko badie eta bere talentu, erruki eta bertute adoretu eta abertzalearen herentzia preziatua jasoko badu, zoritxarrez desagertutakoa betiko hilobian ehortzi behar dugu”.

Kasuz arduratzen den instrukzio-e-paileak, fiskaltzaren onespina jaso ondoren, 2020ko irailean erabaki zuen hortza familiari ematea eta, hala, 60 urte eta gero, Lumumbak bere hilobia izango du. ●



EMMANUEL RODIER

Hildakoak ehorzten bakarrak gara?

Gure espeziea (*Homo sapiens sapiens*) besteengandik bereizten duten ezaugarrietako bat hildakoak ehorztea da. Orain arte hala izan da behintzat. Baina Frantziako Historia Naturalaren Museoko, CNSRko eta EHUKo ikertzaileek osatutako talde batek 1970ean La Ferrassie (Dordoina) aztarnategian aurkitutako haur baten arrastoak

ikertu berri ditu. Hezurrek 41.000 urte dituzte, *Homo neanderthalensis* espeziekoak dira eta haurra berariaz lurperatu zuten hildakoan. Kasu bakan hori ez da nahikoa hipotesia baieztatzeko, baina neanderthalgo gizakiek ere beren hildakoak ehorzten zituztela ondoriozta liteke froga gehiago aurkituz gero. ●

ARGIAKO LANTALDEAN KIDE BERRIA: PERU IPARRAGIRRE



DANI BLANCO

Harrobia sendotzen (I)

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Sinadura berriren bat topatu al duzu urte berri honekin batera, irakurle? Espektatiba akaso gehitxo jarri dizkiogun 2021ari buruz ez naiz arituko hemen, bestela ere izango duzu nahiko espazio horretaz entzun eta hitz egiteko. 2021arekin batera ARGIA iritsitako aurpegi berriak aurkeztu nahi dizkizut. Gaur Peru Iparragirre. Berari buruz pixka bat jakin nahian eta irakurleari aurkezpen txiki bat egiteko asmoz bota dizkiot galdera labur batzuk. Eran-tzunak diskretuak dira, umilak, baina iruditzen zait harribitxi bat dugula eskuartean.

Urtea hastearekin batera iritsi zara ARGIAra. Eskaintza bat jaso eta zuk onartu.

Urtebeterako lana eskainiz deitu zidaten duela denbora bat. Interesgarria iruditzen zaidan proiektua da ARGIArena eta bertan, urtebetez, gustuko dudanean lanean aritzeko aukerari nola esan ezetz?

Aurretik zertan aritu zara?

Prentsari dagokionez, *Gaztezulon* hasi nintzen kolaboratzaile modura, gero literatur kritikari aritu nintzen *Berrian* eta kazetaritza praktikak egin ditut *Irutxuloko Hitzan*. Bes-

talde, lagunartean sortutako *Lekore* aldizkariarekin ere aritu gara orain dela gutxi arte.

ARGIA zein arlotan ikusiko zaitu irakurleak? Izango duzu bereziki gustuko duzun gairik.

Kultura eta literatura ditut gustuko, batez ere, baina beste arloetan ere arituko naiz ziur aski.

Zer jaso nahiko zenuke ARGIAtik?

Historia luzea du ARGIAk, eta denbora honetan guztian asmatu du egokitzen eta berritzen, oinarriak galdu gabe. Esperientzia metatu horretatik ikasi nahiko nuke, eta egunerokotasunean zein astez astekoan interesekoak eta garrantzitsuak diren gertakariei eta ahotsei zabalkundea ematen lagundu.

Idatzizko lanean ikusiko dugu oraingoan batez ere Iparragirre, baina argia.eus-eko multimedia atalean, ikus-entzunezko *Booktegi* sailean egindako lanen bat edo beste ere ikus dezakegu, bai elkarriketatzaile eta bai elkarriketatu paperetan. Biak interesgarriak, gehixeago ezagutu nahi badugu bere ibilbidea.

Badugu, dena den, urtebete gutxienez, bere lanaz gozatzeko aukera. Ongi etorri, Peru. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Arabar Errioxan euskaraz hitz eta jolas egin nahi dugula!"

Viñaspreko Alberto

"Betidanik ezaguna izan dut eta bazkide izateko gura izan dut baina ez nuen pausua ematen".

Gasteizko Aitor

"Euskal Herriari eta munduari buruzko kazetaritza kritikoa Bartzelonan irakurri ahal izateko. Biba zuek!"

Bartzelonako Iris

"Uste dudalako, euskarazko informazio independentea guztiz beharrezkoa dela, binomio horren bi hankak zein baino zein garrantzitsuagoa izanda".

Abadiñoako Urko

"1-ARGIAk egiten duen lan sakona egoera, eboluzioak eta erronkak aztertze. 2-Lan hori euskaraz egitea. Gure ahalekin arabera, eta denbora gutti izanez irakurtzeko, gure aportazioa egin nahi dugu".

Gamarteko Mikele eta Mixel

OPORRALDIKO LANDARE SORTA



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Estropozo handirik gabe joan dira sasoi berriaren hasiera egun hauek, egun-argia luzatzen hasi dela ospatzeko egunak. Sasoi berria argi orduak hazten hasi zirenean abiatu genuen, solstizioarekin, egutegiko abenduaren 21ean, alegia. Urte berriaren adigaia zera da, egutegiak eta ordulariak behar ditugunon neurrikoa, ez inolaz ere naturala. Lehengo eta oraingo haginteen girgilu eta bilur estutxoaren neurrirako "jaiak"; erlijioen, kapitalaren eta abarren asmoen eta helburuen bideko diruhuste eta odoluste egunak.

Sasoi berriaren ospakizuna bakoitzarena eta bakarra da. Urrutira gabe, geurean bertan, zenbat era daude? Beti landareei lotuak, baina. Soinean jantzen ditugunak, okeletan jaten ditugunak eta antzekoenak kenduta, bereziki jan-edanean eta apainduran landare saila baliatzen dugu.

Apainketan mihura (*Viscum album*), gorostia (*Ilex aquifolium*), basaerratza (*Ruscus aculeatus*), goroldioak, izei gorria (*Picea abies*), poinsetia (*Euphorbia pulcherrima*), oihañeko kaktusa (*Schlumbergera x buckleyi*) eta abar.

Jatenetan errege-opilaren garia (*Triticum aestivum*) eta konfitatutako udare (*Pyrus communis*) eta laranja (*Citrus x sinensis*), baita honen lorezko ura ere; gainontzeko ogietako artoa (*Zea mays*),



Konpota. Argazkia: Euskal Gastronomia Eskola.

espelta (*Triticum spelta*) eta zekalea (*Secale cereale*). Gosarietako oloa (*Avena sativa*), kiwia (*Actinidia deliciosa*), ahua-katea (*Persea americana*), banana (*Musa x paradisiaca*), marmeladako ahabia (*Vaccinium myrtillus*), mugurdia (*Rubus idaeus*), masusta (*Rubus fruticosus*) eta abar. Jan-aurreko gaztainak (*Castanea sativa*), lukainken piperrautsa (*Capsicum annuum*) eta olibak (*Olea europaea*). Otorduetako izoki ketuaren aldameneko kaparra (*Capparis spinosa*) eta aneta (*Anethum graveolens*), aza (*Brassica oleracea* var. *capitata*), baratxuria (*Allium sativum*), tipula (*Allium cepa*), porrua (*Allium porrum*), azenarioa (*Daucus carota*), azalorea (*Brassica oleracea* var. *botrytis*), zainzuria (*Asparagus officina-*

lis), kukulua (*Lactuca sativa*), endibia eta eskarola (*Cichorium endivia*), bakailaoaren perrexila (*Petroselinum crispum*) eta tomatea (*Solanum lycopersicum*), azpizunaren lagun pikillo piperra.

Azkenburu guztien azukrea (*Sacharum officinarum*), konpotako sagarra (*Malus domestica*), albertxikopasak (*Prunus armeniaca*), aranpasak (*Prunus domestica*) eta mahaspasak (*Vitis vinifera*), intxaursaltsako intxaurrea (*Juglans regia*), arrozenearen arroza (*Oryza sativa*), limoia (*Citrus x limon*) eta kanela (*Cinnamomum verum*), pikopasak (*Ficus carica*), txokolatea (*Theobroma cacao*), arbendola (*Prunus dulcis*), hurra (*Corylus avellana*), gaztaren lagun irasagar-gozokia (*Cydonia oblonga*) eta abar.

Otordu arteko eserialdien freskagarri mandarina (*Citrus reticulata*) eta anana (*Ananas comosus*).

Digestioari laguntzeko edarrietan sagarra, mahatsa, garagarra (*Hordeum vulgare*), lupulua (*Humulus lupulus*), gintonikaren ipurua (*Juniperus communis*), vodkaen patata (*Solanum tuberosum*)... Amaitzeko, kafea (*Coffea* spp.), tea (*Camellia sinensis*) eta purua (*Nicotiana tabacum*) edo txirria (*Cannabis* spp.).

Bestondoan, larranbiloa (*Matricaria chamomilla*), eta ezta orduan ere ez gara oportzar horietako landare janaz gogoratuko. ●

Etxeko landareak Hitzaldia antolatzeko

Osasun neurriak zainduta zure herrian Jakoba Errekondoren hitzaldia antolatu nahi baduzu, idatzi:

bizibaratzea@bizibaratzea.eus



NEKAZARITZA-ERRELEBOA

ERRELEBOARENA DA KRISIA, ALA ELIKADURA SISTEMA OSOARENA?

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Nekazaritza-erreleboaren inguruko jardunaldiak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitateak aben-duaren 14an eta 17an, FIT4FOOD2030 egitasmoarekin eta Openbide eta Bizilur elkarteekin laguntzarekin. Gazte berriek inkorporatzeko dituzten zailtasunak, sektorearen erakargarritasun falta, lurra eskuratzeko oztopoak... asko dira errelebo faltaren eta sektorearen zahartzearen atzean dauden arrazoiak. Horiek xehatzea eta nekazaritza-erreleboa bermatzeko erronkak azaltzea –edo, behintzat, zenbait pista ematea– izan zuten helburu jardunaldiek. Zoe Brenten mintzaldiaren zatitxo bat jaso dugu artikulu honetan. Transnational Instituteko Justizia Ekonomikoko ikerlaria da bera eta elikadurari, lurrari eta urari lotutako politiketan dihardu.

LURRA ESKURATZEKO ZAILTASUNAK

Europar, belaunaldiaren arteko erreleboan eragin zuzena du Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) –gaztelaniaz PAC bezala ezagutzen denak–. “1959an hasi zen Europako politika hori lehen sektorea babestu, ekoizpena bultzatu eta gosearen kontra egiteko helburuarekin, baina urte hauetan guztietan asko aldatu da”, esan zuen Brent ikerlariak sarreran. Hain zuzen ere, NPBak nekazaritza-e-

Zoe Brent,
Transnational
Instituteko
Justizia
Ekonomikoko
ikerlaria.

erreleboan duen eragina ulertzeko, bere garapeneko hiru momentu garrantzitsu azpimarratu zituen: 1992a, merkatu eta prezioen liberalizaziorako pausoak ematen hasi zirenean; 1999a, lehen sektoreaz harago landa garapenerako beste ikuspegi bat gehitu zenean –turismora eta beste sektore batzuetara ere fondoak bideratuz–; eta 2003a, “desakoplamentuaren” erreforma egin zenean.

Azken erreforma horrek gaur egun arazo nagusietakoa bilakatu den lurre-rako sarbidean eragin zuzena izan du, Brentek azaldu zuenez: “Ordura arte NPBtik zetozen diru-laguntzek ekoiz-

penarekin zuten lotura, baina momentu horretan hori aldatu eta hektareekin lotzen hasi ziren”. Hau da, laguntzak lur kantitatearen arabera jasotzen hasi ziren laborariak, eta horrek lurren alokairua eta lagatzea nabarmen zailtzen du. Europa osoan lursail handien kontzentrazioa areagotu zen erreforma horrekin batera.

ERRELEBO FALTA, GAITZ BATEN SINTOMA

Krisi egoeran dagoen elikadura sistema oso baten zati txiki bat bezala ulertzen du Brentek belaunaldiaren arteko erreleboa. “Baserritar belaunaldi berrien instalazioa babesten ez duen ekoizpen eta harreman sistema baten baitan kokatu beharra dugu erreleboaren krisia. Egun nagusi den elikadura sistemak ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harremanetan, pertsonen osasunean eta lan arloan eragin zuzena du. Geroz eta eskala handiagoko ekoizpenekiko menpeko da, eta lan indar prekarizatu edo erdi-esklaboan oinarritzen da”.

Erreleboa bermatzeko eta elikadura sistema justuago bat edukitzeko, ikerlariak nahitaezko jotzen du bestelako ekoizpen eredu baterantz pausoak ematea. “Horretarako, baina, aldaketa asko eman beharko dira sektorearen eta instituzioen arteko harremanetan”, gehitu zuen. ●



Kanta zaharrekin negozio berria

Digitalizazioak musikaren industria hankaz gora jarri zuen mende honen hasieran, baina disko-salmentan oinarritutako ereduaren errautsetatik negozio-molde berri eta, akaso, are espekulatzailagoa sortzen ari da. Multinazional eta inbertsio-funtsak kanten eskubideak erosten ari dira, etorkizunean izango dituzten entzunaldiei esker irabaziak biderkatzeko.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Universal Music Group multinazionalak iazko abenduan iragarri zuen Bob Dylanen kanten katalogo osoa bereganatu duela. Erosketa historikoa da alderdi askotatik begiratuta: hasteko, tratuan gastatutako diru kopuruagatik, zehazki publiko egin ez den arren 200 milioi dolar (165,5 milioi euro) ingurukoa izan baitaiteke NBC hedabide estatubatuarren arabera eta, horrenbestez, inoiz egin den musika salerosketarik garestienetako baten titulua bereganatu du. Dylanen ibilbidearen amaiera gertuago dagoela adierazten duelako ere eman du zeresana –Minnesotako artistak bizkar gainean daramatzan 79 urteak kontuan hartuta inork ez luke harritu behar, baina badirudi bizirik dauden mitoei kosta egiten dela hezur haragizko pertsonen muga berdinak dauzkaitela onartzea–. Eta *Like a Rolling Stone* bezalako abestiak aurrerantzean norenak izango diren jakiteaz gain, albisteak agerian utzi du azkenaldian abesti zaharren eskubideekin sortzen ari den negozioa.

Gauza jakina da norbaiten izenean erregistratutako kanta bat irratian edo telebistan entzuten den bakoitzean, edo erabiltzaileraren batek plataforma digital batean play ematen dion aldiro, egileak diru kopuru bat jasotzen duela. *Royalty*

horiek eztabaida-iturri ere izan dira, industria musikalak garai batean disko-salmentari esker banatzen zituenekin konparatuta, gaur egun Spotify edo Youtube bezalako plataformek ematen dituzten sosekin milioiak lortzea mundu osoan ezagunak diren artisten klub txiki baten esku bakarrik dagoelako. Hori bai, *Blowin' in the Wind* edo *Hurricane* konposatu badituzu, ez dago arazorik: hamarkadak daramatzate irabaziak sortzen eta munduak asko aldatu beharko du etorkizunean kanta horiek entzulerik gabe geratzeko.

Alde horretatik, Dylanen 600 abesti inguruko katalogoa epe luzeko inbertsioa izan da Universalentzat. Eta ez da egin den mota horretako tratu bakarra: 2020an bertan *The Guardian* egunkarian publikatutako artikulu baten bidez ezagutu dugu Stevie Nicks Fleetwood Mac taldeko abeslariak Primary Wave konpainiarekin sinatutako akordioa, zeinaren arabera, 100 milioi dolarren truke (82,8 milioi euro) artistaren katalogoaren parte handiena eskuratu zuen konpainiak; Taylor Swiftrek ere lehenbiziko sei diskoen eskubideak Shamrock inbertsio-funtsari saldu zizkion Donostian ehunka etxe erosteko adina emango lukeen kopuru baten truke. Beste ondasun askorekin gertatu den moduan, abestien truke-balioa finantza-espekulaziorako

erabiltzen da geroz eta gehiago. Eta badirudi hazten ari den negozioa dela.

MUSIKAREN TRUKE-BALIOA

Merck Mercuriadisek badaki zerbait horretaz. Virgin multinazionalen 19 urterekin sartu zenetik, kantetatik dirua ateratzetik bizi da, eta gaur egun Hipgnosis inbertsio funtseko burua da. *Thought Economics* webguneari 2019an eskaini zion elkarrizketa batean esplikatu zuen bere filosofia: “Kanta arrakastatsuek eta musikak, arteak orokorrean, berezko balioa dute. Baina jendea ez da konturatzen kanta bat egiaztatutako arrakasta daukan zerbait bihurtzen denean, harekin lotutako irabazien bilakaera oso erraz aurreikus daitekeela eta fidagarria dela, eta horrenbestez, inbertitu daitekeela horretan. Kantak urrea edo petrolioaren bezain baliotsuak dira”. Are gehiago, urrea edo petrolioaren baino inbertsio hobeak izan daitezkeela defendatzen du, kantak ez daudelako merkatuen gorabeheren hain lotuta. Mercuriadisen arabera beti ari gara musika kontsumitzen, eta aldiz, urrea bezalako “balio seguruak” oso gutxi erosten dituzkete.

COVID-19aren pandemiak arrazoia eman diola dirudi: etxean askoz denbora gehiago pasatzen dugunez, Spotifyren eta antzeko plataformen ordainpeko erabiltzaileak hazi egin dira 2020an.

Publiko gehiago, Hipnosisek erositako kanten entzule potentzial gehiago: Mercuriadisen konpainiak nazioarteko *hit* zaharren aldeko apustua egin du, Bon Joviren *Livin' on a Prayer*-etik Eurythmicsen *Sweet Dreams (Are Made of This)*-eraino, baina katalogoan ditu arrakasta berriagoak ere –*Despacito*, adibidez–.

Berez iraganeko kanten etorkizuneko irabazietan inbertitzea ez da asmakizun berri-berria. Mark Sweney kazetariak *The Guardian*en gogora ekarri duen moduan, 1990eko hamarkadan “Bowie bonoak” salgai jarri ziren, bakarlari ingelesak 1993. urtera arte argitaratutako kanten truke %7,9ko interes tipoa eskainiz hamar urtera. Kontuak funtzionatzen zuela ikusita, beste artista batzuen erreperorioarekin ere antzeko operazioak egin ziren –Iron Maiden edo James Brown, besteak beste–. Baina 2000ko hamarkadan industria diskografikoak, ordura arte ezagutzen genuen bezala behintzat, hon-

doa jo zuenez, diruzaleek beste aktibo batzuetan inbertitzea erabaki zuten.

PLATAFORMEN PARADOXA

Streaming plataformak bihurtu dira musika negozioarentzat eredu errentagarri berria, disko salmenta gaintutuz, baita P2P sareen bidez egindako deskargak ere, azken hauek doan izan arren. 2020. urtearen amaieran mundu osoan 450 milioi lagunek ordaintzen zuten Apple, Amazon edo Spotifyren plataformetan musika entzuteagatik. Diru asko da hori. Eta gauzek nola funtzionatzen duten ulertzeko, Lester Freamonek *The Wire* tele-sailean esplikatzen zuen moduan, diruari jarraitu behar zaio: negozio errentagarria diskoak saltzea zen garaian, industriak nobedadeetan jarri behar zuen indarra, argitaratu berri ziren albumak promozionatzeko euskarri fisikoan banatu behar zen produktuaren kopia ahalik eta gehien saldu ahal izateko. Ereditu digitaletan, banake-

ta fisikorik ez dagoenez, badirudi berri-tasunaren aldagaiari beste bat nagusitu zaiola, “inpaktua” edo “birala” bezalako hitzetan laburbildu daitekeena. Baina *hit* bat lortzea plataforma bakoitzaren algoritmo apetatuen arabera bixuratu denez, eta dirua jartzen dutenei ez zaienez gustatzen erruleta errusiarrean jokatzeko, ez da zaila ulertzeko zergatik hasi diren kontratu milioidunak agertzen “betiko” kantak eskuratzearan truke.

Paradoxa handi samarrak eragiten ditu etekin ekonomikoaren logikak: aparailu digitaletan jositako hipermodernitate honetan, mundu osoko musika guztia klik batean eskura edukita, dena deskubritzeko dagoenean, duela hamarkadak grabatutako abesti oso ezagunen alde egin dute apustu sos handidunek. Dylanek ez zuen asmatu *The Times They Are A-Changin'*-en “*As the present now / Will later be past*” kantatu zuenean. Izan ere, musikaren industrian, iragana da orainaldi berria. ●

JOAN BAEZ ETA BOB DYLAN
1960KO HAMARKADAKO
ARGAZKI BATEAN.



MOYRA DAVEY

ARTXIBO BIZIA

Apartamentua New Yorkeko Riverside kalean dago, adreilu gorriko eraikin erraldoi bateko azken solairuren batean. Eguzki epela sartzen da etxeak dituen leihoetatik eta apartamentuko txoko ezberdinak goxo-goxo argizatzen ditu. Kanpoalderantz begiratuz gero, pareko edifizioko ur-biltegia dago, Hudson ibaia alde batera, Central Park urrutiago eta hirugarren plano batean. Manhattango etxe-orratzek zerua erditik mozten dute. Moyra Davey apartamentuan aurrera eta atzera dabil, aurikularrak belarrietan eta grabagailua eskuan dituela, bere bakarrizketan murgilduta. Deskribatutako agertoki hori, bere pelikuletako edozein eszena izan liteke.

 JONE ALAITZ URIARTE

Argazkilaria, idazlea eta zinegilea da Moyra Davey (1958), Toronton jaio eta New Yorken bizi den artista. Artium museoak bakar-kako erakusketa eskaini dio artista kanadiarrari; 80. hamarkada erdialdetik gaur egun arte egindako lanak biltzen dituen proiektua soil da estiloz, baina esanguratsua. Erakusketaren irekiera ekainetik urrira atzeratu behar izan zen osasun krisiaren eraginez, eta lehen aldia da Daveyren lanak Europako museo publiko batean aurkezten direla. 2017an *Walking with Nandita* (Nanditarekin oinez) ikusizko saiakera Kasseleko dokumentan aurkeztu zuen eta bere obrak, besteak beste, MoMA eta Tate London bildumen parte dira. Hala ere, itxaroteak merezi izan du, hare eta desiragarriagoa egin duelako Daveyren unibertsoan murgiltzeko aukera izatea.

Erakusketaren planteamendua xumea da: zuri beltzean inprimatutako argazki serie ederra hasieran, argazki-postal multzoak han eta hemen aretoa ziprztintzen, eta Daveyk zuzendutako sei ikus-entzunezkoek proiektuaren muina osatzen dute. Horiek guztiak, baina, bata bestearekin estuki lotuta daude. Hasierako argazkietan aurkezten zaizkigun Rosie txakur beltza, Moyraren semea eta haren lagunak, edota zeha-

ro laurogeiko hamarkadakoa den *looka* duen artistaren ahizpa gaztea, ondoren datozen pelikuletan ezagun egingo zaizkigu: argazki berdintsuetan batzuetan, eta hezur-haragitan besteetan. Halaber, erakusketara sartzearekin batera, Moyraren ahotsa somatuko dugu airean flotatzen, eta presentzia hori bisita osoan lagun izango dugu.

Betidanik erakarri nau arte postalak, posta-zerbitzuaren bidez eskala txikiko lanak bidaltzea helburu duen mugimendu artistikoak. Moyrak ere ekintza horri ekiten dio serie bat osatzen duten argazkiak banan-banan hartuz eta bere baitan tolestuz, argazkiak berak eskutitz forma hartzen duen arte. Hartzailearen izena idatzi, dagozkion zigiluak itsatsi eta postaz bidaltzen ditu, gehienetan bere kolaboratzaile eta gertukoei. Denbora bat igaro ondoren, argazkiak bildu eta pieza artistiko gisa aurkezten ditu, pleguak, zimurdurak eta kilometroen joan etorriak paperean igartzen direla. Erakusketan barrena, argazki multzo ezberdinekin egingo dugu topo; batzuk ondoan daukaten pelikuletako fotogramaz eginda daude, *Notes on Blue Mailer* (Oharrak Blue Mailer gainean) seriea adibidez, Artiumeko hogeai langile eta kolaboratzaile bidalitako argazki-postalez osatutako sorta.

Moyra Daveyk bere biografiatik eta intimitatetik sortzen du. Argazkietan hori igarri daitekeen arren, bere pelikuletan Daveyren unibertsoa guztiz zabalitzen zaigu. Bere apartamentua da egiten dituen ikus-entzunezkoen kokalekua, eta pelikula batetik bestera salto egitearen ondorioz, espazio hura gero eta ezagunagoa bilakatzen zaigu: leiho ondoan ohea, batzuetan eginda bestee-tan deseginda; azuleju zuridun komuna; sukalde txikia, eta marrazkiz eta notaz estalitako hozkailua; bere ahizpen gaztetako erretratuak horman itsatsita zinta urdinez; liburu mordoa, batzuek hauts kapa sendoa dute gainean, beste batzuk irekita daude, eskuz idatzitako nota batzuen ondoan; eta kamerak, tripodeak, grabagailuak eta kableak han eta hemen. Etxea estudio bilakatu da.



Filosofu peripatetikoen antzaz, hara eta hona, logela batetik bestera igarotzen da Moyra, grabagailua eskuan eta bere bakarriketan buru-belarri, pausoa gelditu gabe. *Off* ahots auto-erreflexiboan etengabeko hitz jariora dauka, gehiengotan ziurtasunez, noizean behin zalantzati. Hitzei bezain besteko arreta jarri behar diegu egiten dituen ekintza sotil baina sinbolikoei: kamera aurrean biluztu eta ohearen alde batera etzanda geratzen da eskuz idatzitako orriak inguruan dituela, Chantan Akermanek *Je Tu Il Elle* (Ni Zu Bera Bera) (1975) filmean egiten zuen bezala. Ohe berean, *take away* eran ekarri dioten jana jango du, konpulsiboki, Akermanek azukre koilarakadak jaten zituen oldar berdintsuaz. Daveyren *Hemlock Forest* (Hemlock Basoa) (2016) filmean etengabekoak dira zinemagile bel-

gikarrari egindako erreferentziak, *News from Home* (Etxeko berriak) pelikula metroko eszenak txertatzen dituenean, adibidez. Mary Wollstonecraft filosofoak, Virginia Wolfek, Margerite Durasek edo Susan Sontagek idatzitako hainbat pasarte eta hausnarketa bere bizitzako beste zenbait gertakariarekin uztartu, nahastu eta bere egingo ditu bideo-saiakera feminista izendatu genitzakeen pelikuletan. Asko dira, beraz, artistaren lanetan lekua aurkitzen duten beste egileen hitzak, eta artistaren artxibo bizian gordetzen direnak. Aipatutako filmak, *Les Goddeses* (Jainkosak) (2011) eta *Wedding Loop* (Ezkontza begizta) (2017) lanekin batera, triptiko bat sortzen du.

Notes on Blue (Oharrak urdinaren gainean) (2015) filmak itsutasunean jartzen du fokoa, eta Derek Jarman artista

ingelesak egindako *Blue* (Urdina) (1993) dokumentala du abiapuntu. Jarman itsu geratzen ari zela egin zuen pelikula, 79 minutuz *klein* tonalitateko urdin koloreko irudi finkoa duena. Moyrak ere bere azalean bizi izan zuen itsutasun pasarterik, eta Jarmanen pelikula, zein José Luis Borges edo Sylvia Plathen testigantzak eta idatziak kontuan hartuta, film intimo hori eratu zuen, auto-erreferentziaz jositik dagoena.

Behin baino gehiagotan bisitatu behar den erakusketa da, denbora behar baita ikus-entzunezko guztiak ikusi ahal izateko. Zinemara joango bagina bezala, aldiro film bat aukeratu eta gure atentzio osoaz ikusiz gero, ziur nago astinduta eta estimulatuta aterako garela museotik. Benetako gozamina da horrelako proposamenak geurean ikusteko aukera izatea. ●



DAVEYREN
LES GODDESS FILMEKO
FOTOGRAMA (MADRILGO
REINA SOFIA MUSEOA)



LIBURUA

Ongi jin



DANI BLANCO

ABARO

ITXARO BORDA

BALEA ZURIA, 2020


IGOR ESTANKONA

Ez da gaur egungo Europako zuritakunaren irletan gehien entzuten den esaldia ongi jin, *kalos irthate*. Itxaro Bordak, oster, zikoitzen kontra idatzi du *Abaro*, dena ematen ez dutenen kontra, besoak zabaltzen ez dituztenen kontra. Poemek ere estu hartzen dute irakurlea, eskatzen diote konpromisoa hizkuntze-kin, esamoldeekin, irudi arean nahasiekin. Itxaro Bordaren idazkera delako, esan dezagun bidenabar, ilunpe fresko bat atsedean hartzeko ortodoxiatik, desintoxikatzeko hainbeste gatzbakotasunetik. Horregatik itxarozaleok liburu hau disfrutatu egingo dugu, eta gainontzekoek, agian, baita ere: “Nor nahi non nahi eser-tzen da./ Eskubide osoz”.

Hasierako poemek kokatze-poemak dirudite, kontenplazio-poemak, sexu

-poemak, sentipenen arragoa: “Besoak zabalik ohe handiegian etzaten naiz/ Antonioniren filmaren batean bezala:/ esteiari”. Esteiariak, baina egiten du apurka-apurka gai sozialetara, munduari diotso darabilen intimidazio, gerra, krudelkeria, laido hori guztia ez dela zilegi, ez dela poesia. Malenkoniatsu ere jarri da gero, eta Mundakatik Bartzelonan barru egin du, eta liburu daroa le-rrro motzen puruz arnasa luzeko poema ederretan barna Arginetaraino, non lagunak dituen zain, lorratzik utzi ezin den eterrean: “Ez dugu deus galtzekorik./ Motxila astunegiek lehertzen gaituzte./ Haize latzek gure desioa birrintzen dute./ Amor ematekotan gaude./ Arren, arindu gaitezen/ Lurreko hautsetan oina luza/ Eta ez dezagun hatzik utz”.

Non egiten du abaro irakurleak beraz? Itxaro Bordaren *Abaro* hone-tan behintzat, inon gutxi. Poemario hau zabalik dago ukabilaren antzera. Promesa bat da, eta promesa hori da kontraste poetiko batekin errealita-tea azal daitekeela: “Kareharrizko ze-ru-mugak./ Egunerokotasun kaltzi-koen iragarpenak./ Begira nagokizu:/ Han, txioak,/ Zaunkak, kroak, kuku-rrukuak/ Eta hiri-bilduaren azantz/ Garatza”. *Abaro* irakur daiteke bere horretan edo kondentsazio moduan, sentsazio baten antzera. Itxaro Bordak beti utziko dizu ate bat zabalik, iltze gori bat zeinari oratu, anbiguetate bat eramangarria. Maite dut Itxaro Borda, hitz bakoitza liberazio bat dela gogora-razten didalako. ●



MUSIKA

Barruko grina eta dotorezia

IKER BARANDIARAN

Izenez soilik ezagutzen nuen Zozaya eta aitortu beharra daukat inoiz abizenarekin nahastu izan diodala, baina ez neukan bere gaineko erreferentzia zehatzik. Bada, orain gutxi lagun batek musikari donostiarrak Azkoitiko Rõ



taldearekin batera Matadeixen egindako emanaldira gonbidatu ninduen eta sorpresa atsegina hartu nuen. Rõ-rekin batera eztanda egin aurretik, Zozayak emanaldi biluzia egin zuen, berak bakar-bakarrik teklatuak eta gitarrak tartekatuz. Goxo aritu zen, baina eszenaratze sotil horretan nabaritu zen badaukala barruko grina berezia eta talentua.

Gauzak horrela, honako hau idazten ari naizen egunean bertan Zozaya berriro agertokian ikusteko aukera izan dut ia oharkabearekin, bere kantutegi, esentzia eta taldearekin. Zozaya, bere ahots xuxurlari baina sarkorrarekin, teklatuan tarteka eta gitarran bestela. Eta alboan gitarra eta bateria jotzaile bana, fin-fin. Emaitza, bestelakoa. Abestiak sotil, baina oso dotore jantzita, eta behin baino gehiagotan eztanda eginda.

Eta, ondorioz, esku artean daukadana da dagoeneko zeresana ematen hasia den eta uste baino eskarmentu handiagoa –gehienetan gordeta– daukan musikari donostiar gazte honen azken lana, *(I)* izeneko eta bost kantaz osatutakoa.

Bat piano doinu malenkoniatsuak zabaltzen du eta Zozayak xuxurlatzearekin dio. Gitarra garden eta atmosferik



(I) SARA ZOZAYA

rikoen laguntzaz intriga pizten du eta elektronika tantak eta pop zirimiria batuta Björk-en goxotasun misterioetsua ekarri dit gogora. *Benetan*-ek gehiago dauka PJ Harveyren arrisku sententziositate eta minimalista bada ere ilunduz eta intentsitate gehituz doa. *Alien* (hauxe gaztelaniaz) pieza melodiko itsasorrra da, borobila, elektronika lausoaren giroekin pausatzen eta kiribiltzen joaten dena. *Lili*-k oinarri latinoak dauka. Elektronika pixka batek lagunduta eta euskaraz lotsagabeki *autotune*-a modu sosegatuan erabilia Björk eta musika hinduaren antzeko topaketa irudikatzen du. *Owltro* ilunagoa da, abesteko modu orkestralagoa darabil eta Nick Caveren *Murder ballads*-en espirituari helduz bezala giroten du. ●



Eguberri egun musikala

AMETS ARANGUREN ARRIETA 📷 NAFARROA ARENA

Kafe kontzertu gisa zegoen iragarrita. Mahai altuak, tabureteak eta lanparatxoak mahaian erdian, baina kaferik ez (ezta beste edaririk edo kontsumitu zitekeen ezer ere). Kuriosoa Nafarroa Arena bezalako aretotzarra giro horretan ikustea. Belakoren zain gaude. Ez dakit pandemiaren eragina izan den, baina nago beste edozein urtetako abenduaren 25arekin ez litzatekeela hainbeste jende hurbilduko kontzertu batera.

Plastic drama diskoa atera du banda bizkaitarrak 2020an eta urte horrek ematen utzi dien kontzertuetako bat izan da hau, betiere baldintza berezietan, noski. Cris, Josu, Lore eta Lander gazteen eskutik indarra, freskotasuna eta doitasun zikina ordubetez. Doitasun zikina diot, utzikeria edo zakartasun puntu bat izan dezakeen musika (batzuetan ilun) horren atzean zehaztasun eta kontrol erabatekoa antzematen

baita. Afinazioa ere bere lekuan izan da uneoro, haiek nahi izan ez dutenean izan ezik, noski.

Ingelesez kantatzen du Belakok ia dena. Pentsatzen hasi naiz orduan, aretoko zenbatak kritikatzin duten (dugun) erdaraz kantatzeko hautua artista batzuegan (izenik eman gabe ere, badakizue zertaz ari naizen) eta zeinen oharkabean pasatzen zaigun beste batzuegan. Ingelesa delako eta ez gaztelania? Hasieratik eginiko hautua delako? Ala estilo kontua da?

Taldeakide guztiek abesten dute kantaren batean ala bestean eta horrek puxtarri bat gehitzen dio taldeari. Taldea trinkotzen du, osotasuna ematen dio. Flipatu dut kanta bakar batean zer egiteko gai diren: ezustekoan harrapatzen zaituzten konpas aldaketak, Crisek aho-tsarekiko duen kontrolaren erakusketak eta hasierako *tempora* itzuliko ziren *ritardando* ezin hobe emanak. Irudiak

jotzeko gai ere izan dira. *The Craft* kantaren bukaeran diskoan ordenagailuz eginiko efektua tranparik gabe egin dute zuzenekoan, adibidez. Urtu egin dute kanta. Hori izan da harrituen utzi nauena. Eta markaturiko perimetroen barruan bada ere, mahai inguruan dantz egitera animatu da jendea, kontzertuaren giroari normaltasun edo zentzu minimoa emanez.

Publikoarekin hitz egiten duten musikariak hurbilago sentitu ohi ditut normalean eta ikusi dut ez dela lau gazte hauen kasua. Eskerrak ematek askoz haratago ez dira joan eta, hala ere, haien arteko interakzioaz eta publikoarekiko jokaera soilaz lortu dute hurbiltasun eta goxotasun hori transmititzea. Zaila da eszenatokian sortzen dutenaz deskonektatzea.

Belako oholta gainean ikusi dudanean lehen aldian izan da, eta egia da elkarrizketa batean ziotena: ez dakite kontzertuetan dena ez ematen. ●



Bertso-zopa

Osatu Ane Labakak 2019an Lasarte-Orian botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Gaia: *Iraia Iparragirre auzokidea Realeko jokalaria da, eta Erreginaren Kopa irabazi berri du bere taldearekin. Omenaldia egingo zaio hemen, auzoan, eta zuk bota behar dituzu bertsoak. Iritsi da unea. Doinua: Gure aurreko guraso zaharrak.*

Oso dotore prestatu zuten
zuentzat futbol zelaia
_____ haundi bat eskuratzeko
iritzi baitzen_____.
Granadaraino animatzera
horren _____ alaia
zuek pitzatu zenutelako
han kristalezko_____.
Zuekin oso harro gaude gu
bejondeizula Iraia!

Ez da alperrik horrenbeste lan
_____ izerdi usai
Zubietara entrenatzera
itzuli zerate_____.
Aste batean hainbeste foko
Zuek _____, zuek guay.
Hilabetea kobra dezazun
besterikan ez nuke _____
erregin batek bezainbeste ez
gizonezkoek beste bai.

Granadako historia
izan zen ta zenbat____!
Baina batzutan foko bakarrak
izaten du nahiko epe.
Realitatera _____ eta
berriro hemen zaudete.
Zuri ta zure taldekideei
hala esan nahi_____
segi _____ neska gazteen
eredu zuek zarete.



V	F	G	H	J	H	A	C	L	S	J	D	H	N	I
O	T	M	I	H	I	V	T	F	C	P	Z	O	A	I
U	B	B	R	A	A	N	I	E	K	E	H	R	B	R
N	Z	U	B	I	H	H	V	P	R	J	E	R	B	T
Z	V	A	T	N	F	U	Z	C	F	U	L	E	D	G
L	S	L	B	B	R	E	N	N	E	K	E	L	L	V
I	T	D	L	E	N	Z	J	L	B	T	L	A	Z	U
Z	F	V	V	S	R	R	K	S	L	A	I	U	N	R
Z	J	A	V	T	J	L	U	F	I	A	M	V	C	F
B	F	D	D	E	V	V	A	B	T	D	S	H	B	O
S	G	B	O	D	F	A	D	B	Z	Z	V	V	A	I
V	A	L	A	S	A	I	R	A	U	R	V	U	H	A
N	R	S	O	N	V	I	B	L	U	F	A	P	D	
H	A	U	C	P	E	D	L	H	I	I	N	O	F	J
M	I	T	X	A	P	E	L	D	U	N	K	H	E	U
C	A	O	V	L	V	B	A	B	P	H	B	S	M	N

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									



6. Eatarra./ Pausaldi (alderantziz).
7. Ebakialdi. 8. Kasik./ ... hartu, lo egin.

GOITIK BEHERA:

1. Ikuspuntu. 2. Ahokada. 3. Egokiak./ Kontsumorako Prezioen Indizea.
4. Neptunioaren sinboloa./ Otoitza.
5. Ugatun emeen ugatzetan eratzen den likido zuria (pl). 6. Ezik./ Galde partikula.
7. Zaletasun atzikia./ Etxeko hegazti.
8. Neurri zehatzean. 9. Barrutik.

EZKER-ESKUIN:

1. ... Koteron, albokaria./ Eta abar (laburdura).
2. Argazkiko udalerria. 3. Ufakoa, putza./ Gizona emaztearekiko. 4. Hondoa oso behean edo gainaldetik oso urrun duena./ Radonaren sinboloa. 5. Paladioaren sinboloa./ Ordu, garai.

Sudokua

ERRAZA

5	6		7		1	2		8
4	2				3	5	9	7
					5			
9		7	5				8	4
2			3		9			5
6	3				8	1		9
			1					
1	7	6	9				5	3
3		2	8		7		4	1

ZAILA

		3						
7		1			9	2		6
					5			3
	1		7				2	
	8			6			4	
	9				1		6	
8			1					
4		6	2			7		9
					8			

EBAZPENAK

Oso dotore prestatu zuten/zuentzat futbol zelaia/kopa haundi bat eskuratzeko/iritzi baitzen garaia./Granadaraino animatzera/horren kuadrilla alai/zuek pitzatu zenutelako/han kristalezko sabala./Zuekin oso harro gaude gu/bejondeizula Iraia!//Ez da alperrik horrenbeste lan/hainbeste izerdi usai/Zubietara entrenatzera/itzuli zerate lasai./Aste batean hainbeste foko/zuek txapelidun, zuek guay./Hilabetea kobra dezazun/besterikan ez nuke nahi/erregin batek bezainbeste ez/gizonezkoek beste bai./Granadako historia/izan zen ta zenbat neke/Realitatera itzuli eta/berriro hemen zaudete./Zuri ta zure taldekideei/hala esan nahi nieke./segi horrela neska gazteen/eredu zuek zarete

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

ZAILA

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

ERRAZA

1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9
1	2	3	4	5	6	7	8	9

9. BARNETIK.
AL. 7. TUN. OILO. 8. ARRADA.
OTIOA. 5. ESNEAK. 6. EZEAN.
2. BAFADA. 3. ONAK. KPI. 4. NP.
GOITIK BEHERA: 1. IKUSPEGI.
8. IAIK. LOAK.
6. EAKOA. IAT. 7. PIKALDI.
4. SAKONA. RN. 5. PD. TENORE.
2. KANPEZU. 3. UFA. SENAR.
ESKER-ESKUR. 1. IBON. ETAB.

Kattalin Artola Vazquez

ZURIKETA MORERIK EZ



ETENIK EZ DUENARI ETENA HEL DAKION

Hernaniko kaleetan dantzan, aldarrikapenetan edota irakurtzen ere aurki dezakegu agian. Baina Hernanin. Askok maite baitu bere herria. Herria bezainbeste maite du berdintasuna, eta horretara bidean egiten du lan, ogibidea aldarrikapen ere bilakatuz. Militantzia. Sistema patriarkal honek bultzatzen eta elikatzen duen indarkeria matxistak ez baitu etenik. Ez etenik, ez mugarik, ez deus onik.

“Egoera honetan emakumeei zer eskaini diezaiekegun pentsatzen ari gara, birmoldatzen”

Barrura begira jarri gaitu Kattalin Artola Vazquezek (1995, Hernani). Barne kezka, gogo eta kontraesanei begira. Emagin elkartearen lan egiten du eta formakuntza da bere lan esparrua. Konfinamenduak eta krisi global honek gogor kaltetu eta kolpatu ditu hainbat eskubide, tartean emakumeonak. Gora egin du indarkeria matxistak. Ahalduntzea, formakuntza, politika feministak... lehentasunezkoak izan beharko luketela uste du, zuriketa morerik gabe.

AITZIBER ZAPIRAIN IRANTZU PASTOR

Zer da Emagin?

Egun, ikerketa, formakuntza, ekoizpena eta dokumentazioa jorratzen dituen elkarte feminista da. Bilgune Feministarekin batera sortu zen. Hasiara batean, mugimendu feministak egiten duen lana jasotzeko helburua zuen. Ez baitago ohitura askorik herri mugimenduen lana dokumentatzeko, ondoren hori behar bezala kontatu ahal izateko. Egun, forma ezberdina hartu du. Lan asko egiten dugu formakuntzaren alorrean, bereziki ikastetxeetan, tailerren, pedagogia feministaren eta hezkidetzaren bidez. Ikasleekin zein irakasleekin egiten dugu lan. Une honetan hor nabari ni lanean. Ikerketaren arloa ere oso indartsu dabil. Gaur egun hori da Emagin. Baina COVID-19 garai hauetan birpentsatu beharko dugu. Bada, edo izan nahi du, behintzat, Euskal Herri feminista sortzeko eragilea.

Zein motatako publikoari ematen dizkiozu formakuntzak?

Nik orokorrean emakumeei. Adin ezberdinetako emakume orori. Agian

oso helduei ez, baina azken hilabeteetan, adibidez, alfabetatze digitala eskaini diegu emakume heldu askori. COVID-19 garaian hori zen harremantzeko aukera bakarra. Euskarriak eskura zituzten, baina nola erabili jakin ez... Beraz, horretan ibili gara eta arrakasta handia izan du.

Eta nerabeetan, zein errealitatekin egiten duzu topo?

Errealitate oso ezberdinak eta anitzak topatzen ditut. Herri berean, bi ikastetxetan, errealitatea oso ezberdina izan daiteke. Hezkidetzara eta pedagogia feminista lantzea irakaslearen erabakia izan ohi da, eta biba haiek!

Ikasleekin jarduten dudanean denetarik ikusten dut. Baina somatzen dut neskak oso kontziente direla zein errealitate bizi garen. Indartsu eta gogotsu sumatzen ditut errealitatea irauli eta aldatzeko. Nik neuk sare sozialak oso gustuko ez baditut ere beraiek bertan topatzen dituzte erreferenteak, baliabideak eta tresnak.



"GUK GARRANTZIA HANDIA EMATEN DIOGU ELKAR SENTITZEARI, GORPUTZARI. BALDINTZA BERRI HAUEKIN ZAILAGOA DA".

Eta mutilak?

Mutilak galduago sentitzen ditut, non kokatu eta nola jokatu ez dakitela. Pribilegio asko alboratu behar dituzte eta ez da erraza. Ez daitezela erasotutako sentitu feminismoarekin. Eta hala sentitu badira, pentsa dezatela zergatik, gogoeta egin dezatela. Jarrera matxistak dituztela esaten zaienean, zer mugitzen zaie? Arakatze lan bat egin behar dute.

COVID-19ak nola eragin dio Emagini?

Bete-betea. Feminismoa eta berdintasuna oinarritzekoak eta lehentasunezkoak direla uste dugun arren, hala dela sinestazartzen duguten arren, instituzioetatik bereziki... ez da horrela. Bertan behera gelditzen diren lehen lan horiek dira gu-reak. Usu aisialdira bideratuak daudelako. Zuriketa morea deitzen diot nik horri.

Zer ekarpen egiten ahal dio Emaginek, bizitzen ari garen aro berezi honi?

Feminismoa eta berdintasuna itxialdian ere berdin-berdin tratatu eta landu behar direla aldarrikatzea. Tresnak eta baliabideak eskaini behar ditugu hausnarke-

tarako. Egoera hauetan non gelditzen da parekidetasuna? Zaintza? Ahalduntzea? Hori dena agerrarazi behar dugu eta garrantzia eman, maila politikoan. Zaintzari eta indarkeriari bereziki.

Zein formakuntza emango zenuke?

Oso gustura lan egingen nuke boteredunekin. Nagikeria eragiten didate, baina beharrezkoa da. Botereguneetan bestelako pentsamendu, bizipen eta pertsonak sartu behar dira. Hala balitz egoera bestelakoa litzateke. Bestetik, emakumeekin lan egin nahi dut, online bada ere, itxialdian bezala. Une hauetan ditugun tailer gehienak betetzen ari dira. Saio hauek lehentasunezkoak direla ohartu dira hainbat eta hainbat emakume. Itxialdiak horretarako ere balio izan du.

Zer moduz online saioak?

Guk garrantzia handia ematen diogu elkar sentitzeari, gorputzari, gorputzetik gorputzera aritzeari. Baldintza berri hauekin zailagoa da. Oso erronka handia da gure lan ereduarekin horrela aritzea. Ez da, inondik inora, berdina. Presentzialki neuk ere ezberdin transmititzen

dut. Baina bestalde, online eskaintzak zenbait emakumeren parte hartzea errazten du, zaintza lanak egiten dituztenena kasu. Zaintza lanak badituzu, esan dezakegu "orain ikastaroa dut, nire denbora da". Eta, usu, emakumezkoak dira etxean daudenak, zaintza lanetan.

Aurrera begira zein erronka dituzue?

Emakumeei zer eskaini diezaiekegun pentsatzen ari gara. Birmoldatzen. Nola ahalbidetu halako espazioak ukaten segitzea. Nola ukan tartea horretarako. Une hauetan hortxe gaude. Ohartzen gara egoera honek emozio eta sentsazio oso ezberdinak sortu dituela, eta guk emakumeen partetik ondoeza sentitu dugu. Emozionala eta fisikoa. Jendeak taldean egoteko desioa du, beharra.

Digitalizazio munduan ere ahalduntzea ezinbestekoa da. Emakume adineko asko bakarrik bizi da. Espazioa gustatu ala ez, ahaldundu behar ditugu horretan, ez dezaten errealtatearekin kontakturik galdu. Kritika sustatzen segituko dugu, eztabaidak sortzen, gogoetarako tresnak ematen... Boteredunei gai hauek lehentasunezkoak direla gogorarazten. ●



ETBk Madrileramango du egoitza nagusia eta Franck Dolosor bana jarriko du Iruñea, Donostia, Gasteiz eta Bilbon



EHUREN MADRILGO KAZETARITZA FAKULTATEKO LEHEN PROMOZIOKO IKASLEAK, ZALDIBIKO TAKOLO-ENEAN EROSITAKO UNIFORMEekin, ERDIAN KLAUDIO LANDA DEKANOAK DUTELA, IKASTURTE HASIERAKO EKITALDIAN.

ETBk bezala, EHUK ere Leioako campuseko eraikina hustu eta Madrilgo Castellana pasealekuko jauregi batean irekiko du Kazetaritza Fakultatea, euskal jendartearen interes-gune nagusitik gertuago egongo diren kazetariak trebatzeko.

AHTren obrak amaitzean eramango du egoitza nagusia ETBk kapitalera, eta unibertsitateak azaldu du ordurako beharrezkoa izango dela berriemaile sorta kualifikatua izatea, espainiar hiriburuen sekretuak ongi ezagutuko dituen.

Andoni Aldekoa EITBko zuzendari nagusiaren hitzetan, "albisteen erdigunea Madril izango da aurki, ez orain bezala; eta gero, ba Franck Dolosor bana jarriko dugu Iruñea, Donostia, Gasteiz eta Bilbon. Bide batez, esan behar da gure asmoa dela Dolosor periferiatik atera eta Talavera de la Reinan hasia berriemaile gisa". Hekimen euskal hedabideen elkarrekin EHUREn aurrerapausoa txalotu du, euskal gizarte moderno eta kohesionatua eratzeke beharrezkoa delako hedabide sare zabala izatea". ●


SAREAN ARRANTZATUA

Polita da animoak elkar ematea



ERANDIOKO MAKRON

Txertoa hartu aurretik eta ondoren



MAGU FONTANA BERE ETXE KANPOALDEAN OSTERATXO BAT EGITEN EGUN ARRUNT BATEAN.

"Elurra ez da existitzen, Munduko Meteorologia Agentziaren asmakuntza da"

Hotza ez da sentipen psikologikoa besterik, beldurra baliatuz txertatu nahi digutena", kexu da Magu Fontana filosofoa, The Independent egunkariak plazaratutako elkarrizketan. "Munduko Meteorologia Agentziak, CIArekin eta Bill Gatesekin elkarlanean, gure hirietako termometroak manipulatatu eta datu nahasgarriak eman ditu hotz-beroaren inguruan. Zer esanik ez "elur" deitu duten asmakuntzari buruz.

Amarrua da dena, herritarrak eskularru, lepoko eta txapelak jantzera behartu eta gure burua are gehiago ezkutatzeke". Etxean sartuta nahi gaituztela dio Fontanak. "Ikusiko duzue, uda partean hedabide lerratuek beste zerbait asmatuko dute eskusiban, eguzkiak berotu egiten duela eta itzaletik ibiltzea komeni dela edo horrelako zerbait esanez. Haien plana argia da. Pentsatu, ez sinistu!". ●

Artikulu hauek erositako
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu

**Bilboko Mbolo Moye
Doole** elkarteari.

Atera aldarria kalera
euskaraz eta wolofez!

24€



Eskaerak egiteko:

943 37 15 45
argia.eus/azoka

OPARITU ARGIA

ZAINDU NAHI DUZUN HORRI

Puska dezagun izotza



Oharretan adierazi
oparia dela eta urtariletik
aurrera hasiko gara
aldizkariak bidaltzen.